


2009ko ekainaren 25a • XXIX. urtea  
www.ttipi.net



## Posta zerbitzuan aldaketak

04

Posta ethez etxe eta baserriz baseri banatu beharrean, postontzi kontzentratuak paratu nahi ditu Correosek, hainbat etxetako posta toki berean uzteko.



## Bera-lrun errepeidea ortziralean zabalik

21

Bi urteko lanen ondotik, ortziral honetan, ekainak 26, inauguratuko dute Beratik Behobiarako errepeidea. Beratik Igantzirako zatia, ordea, gibeleratua dabil.

## 03 Euskal Herriko talorik goxoena Saldiaskoa

MARIA MITXELENAK EUSKAL HERRIKO  
TALO TXAPELKETA IRABAZI DU





## LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEA

Gora San Fermin!

- Txinelka zapatadenda
- Esther ateak
- Iñaki portu janaridenda
- Ibaiondo janaridenda
- Bixkiak kirolidenda
- Goizalde janaridenda
- Goizargi arropadenda
- Maite Maya arraindegia
- Legarra liburudenda
- Gemma Igarzabal ileapaindegia
- Maite Igarzabal ileapaindegia

- Txirula loreidenda
- Lesaka autoeskola
- Olga Alzate botika
- Osiña arropadenda
- Deñe lentzeria
- Juan Luis Otxoteko margoak
- Ortzadar opari denda
- Comercial Maria Jesus
- Ordoki altzariak
- Telletxea argazki eta liburudenda
- Antxordoki ahizpak

- Oronoz argazkidenda
- Haizea kafetegia
- Atxaspi hotela
- Kattu ostatu jatetxea
- Intzuri optika
- Barcelo bidaiak
- Kaxerna elektrogailuak
- Oreka nutrizioa eta dietetika
- Oninart
- Felipe Mindegia Marichalar
- Pampina haurren arropa-denda

## TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**

Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Zure laguntza eskertzeko,  
motxila eder hau  
izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua  
aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako  
Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu  
TTIPI-TTAPara 2009ko abenduaren 30a  
baino lehen.

geure bezeroek  
aukeratutako  
proiektua **can**



## DATUAK...

- 18-19 urte zituenetik taloak egiten dabil Maria Mitxelena saldiastarra. Ahizpa, ama eta senarrarekin hainbat tokitan ibiltzen da taloak egiten.
- Aurten lehenbizikoz Euskal Herriko Talo Txapelketa jokatu zen Erreterian maiatzaren 23an. Euskal Herriko 16 talogilek hartu zuten parte, eta tartean saldiastarrak. Irabazlearen txapela eta 1.000 euroak beretzat izan ziren.
- Talo on bat egiteko sekretua zein den aitortu gabe, batera eta bertzera nola ibiltzen diren kontatu dio Mariak Ttipi Ttapari.



**Maria MITXELENA** *Saldiasko talogilea*

ARGAZKIA: OARSOALDEKO HITZA

# «Talogileen talde txiki asko dago baina haundien esku dago merkatua»

## ttipi-ttapa

**Nolatan aurkeztu zinen Euskal Herriko Talo Txapelketa?**

Talo Eguna izaten da egun horretan Erreterian eta behin baino gehiagotan parte hartu izan dugu. Lehengo urtean ez ginen joan baina aurten berriz deitu ziguten joan nahi ote genuen galdetzeko. Guk ezetz esan genien. Hortaz aparte, Talo Txapelketa egin behar zutela eta, parte hartu nahi nuen galdetu zidaten. Arazo pertsonalak zirela eta, ez nekien nola ibiliko nintzen eta ezetz esan nien. Azken astean berriz deitu zidaten eta senarrak baietz esan zien. Beraz, berak ere badu meritua.

**Espero zenuen irabazle izatea?**

Inondik inora ere ez. Hor barna taloak egiten ibiltzen garenean, adinekoak hurbildu eta «ez da horrela egiten» eta hala-koak aditu behar izaten dira eta txapelketa egunean 16 lagunetik bakarra zen ni baino gazteagoa, leitzar bat. Denak adinekoak izanik ez nuen espero irabaztea. Dirua baino gehiago, saria niretzat izan delako nago gustura.

**Zer egin behar izan zenuten lehiaketan?**

Ur beroa, hotza, palangana eta kilo er-

**«Garai batean ez zuten arto transgenikoak zer ziren jakinen, eta orain Nafarroan transgenikoa ez denik ez da izanen. Lehen gehiago jaten zuten eta zaindutakoak ziren»**

di irin eman zizkiguten, baita txapa ere, eurek pentsatutako tenperaturan. Guk tabla eta espatula eraman genituen. Hamar minutu eduki genituen taloa egin, erre eta aurkezteko. Taloak gustuaren arabera dira, eta txapelketan niri gustatzen zaidan bezala egin nuen: fina eta bi azalekin.

**Zein da talo on bat egiteko sekretua?**

Sekretua da! –irribarrez–. Irina, ura eta gatza behar dira eta kantitatea norberak aukeratzen du. Esaten dutenez, masa egiterako esku ona behar da. Taloa edozeinek egin dezake, baina masa ona egin behar omen da.

**Nola ikusten duzu talogintza?**

Itsasoa bezalakoa da hau, arrain haundiak txikia jaten du. Talde txiki asko dago, baina bizpahiru talde haundi daude eta merkatua euren esku dago. Es-

katzen den diru kopurua edozein dela ere, gai dira ordaintzeko, eta zaila da lehiatzea. Gainera, hemen inguruan taloak egiteko ohitura haundia dago.

**Plazaz plaza ibiltzen zarete?**

Bai. Ama, ahizpa, senarra eta laurok, eta feria haundiagoa bada gehiago. Denboraldia irailan hasten da, eta ilbeltza arte gelditu gabe aritzen gara: Arnedo, Elizondo, Doneztebe eta Lesakako feriak, Erribera, Lizarrako San Andresak, Santomasak, Arrasateko Santomasak, Deba, Tafalla... Ilbeltzetik aurrera lasaiago egoten gara. Uztailean Sorogainera joanen gara eta abuztuan lan gehiago edukiko dugu.

**Garai batean eta gaur egun egiten diren taloak berdinak al dira?**

Ez. Garai batean ez zuten arto transgenikoak zer ziren jakinen, eta orain Nafarroan transgenikoa ez denik ez da izanen. Lehen gehiago jaten zuten eta zaindutakoak ziren. Masa egun batean egin eta biharamunera arte ere uzten zuten. Normalean, ordea, fermentatu egiten da. Ogi irina nahasita irauten zuen. Horrez gain, orain txapan egiten dira eta lehen lurreko suan. Ez du deus ikustekorik, ez gustuan, ez usainean ere.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Marisolek eta Sunbillako Eguzkialdea auzoko bertze bizilagunek etxetik aparte duten postontzi kontzentratuan hartzen dute posta.

POSTA ZERBITZUA EZ DA ETXEZ ETXE BANATUKO ZENBAIT BASERRITAN

## Uztailaren 1etik aitzinera postontzi kontzentratuak hainbat auzotan

**Heldu den hilabetetik aitzinera, eskualdeko familia aunitz etxez etxe-ko posta zerbitzurik gabe geldituko dira. Horren ordez, postontzi kontzentratuak paratuko dira puntu jakin batzuetan inguruko etxeen posta biltzeko. Correosek «salbuespen kasutzat eta inguru berezizat» dituen tokietan sartuko da indarrean neurria, «isolatuak» diren etxeetan. Baserriak multzo horretan sartu dituzte, baita herri-guneko zenbait auzo ere. Erabakiak, ordea, ez du erantzun onik jaso eskualdean. Udalak eta aldaketa somatuko duten herritarrak posta etxean jaso nahi dute, orain arte bezala. Aldaketa, oraingoz, Etxalar, Bera, Sunbilla eta Zugarramurdi egin nahi da. Desadostasuna agertuz, Etxalarko Udalak ekimen bat ere paratu du abian. Erabakiaren kontrako mozioa onartu eta udalez udal atxikimenduak biltzen ari da. Dagoeneko Bortzirietako udalek eta Sunbilla, Bertizarana, Doneztebe, Urrotz, Baztan eta Zugarramurdikoez bat egin dute. EAK, bere aldetik, posta zerbitzua bere horretan mantentzeko eskatu du.**

### ttipi-ttapa

Gaur egun, baserrietako posta astean bizpahirutan banatzen da, baina postaria etxera joaten da eskutitzak eramatera. Uztailaren 1ean, ordea, zerbitzua aldatu egingen da eta ohiko posta ez da etxez etxe banatuko, etxebizitza aunitzetako posta bilduko duten kasilleroak edo kutxatilategiak erabiliz baizik. Momentuz aldaketaren abisua jaso duten herriak Etxalar, Sunbilla, Zugarramurdi eta Bera dira.

503/2007 Errege Dekretuan oinarrituz egin nahi du aldaketa Correosek. Horren arabera, Correosek «salbuespen kasuetan eta inguru berezietan» banaketa postontzi kontzentratuetan egiteko eskubidea du. Correoseko prentsa bulegotik azaldu dutenez, «aldaketaren helburua banaketaren kalitatea hobetzea eta normalizatzea da, eta legea betetzea».



Normalizazio ezaren gibelean, hainbat arrazoi daudela aipatu du Correosek: «eskutitz aunitzek ez dute helbidea ongi idatzia izaten, ez dute posta entregatzeko guttieneko informaziorik—izena, kalea, zenbakia eta herria—; etxearen izena bakarrik izaten dute». Horrez gain, Correosen arabera, «hainbat etxek ez dute buzoirik», eta bide batzuen egoera «eguraldiaren arabera, arriskutsua» da.

Legearen arabera, hektareako 25 biztanle eta 10 etxebizitza edo guttiago dituzten inguruetan Correosek posta zerbitzuan aldaketa hau egin dezake. Baita zerbitzu publikoak emateko erabiltzen den edozein bidetik 250 metro baino urrutiago dauden etxeetan ere. Horri erantzunez zera adierazi du Patxiku Irisarri Etxalarko alkatea: «Bortzirietako Mankomunitateek euren zerbitzuak ematen dituzte auzo horietako etxeetan, inongo arazorik gabe». Gainera, Correosentzat isolatuak diren etxe horiek «auzoak osatzen dituzte, eta hala onartuak daude».

Multzo horretan gure eskualdeko baserri auzo aunitz sartu dituzte, eta Sunbillako herriguneko eremu batzuk ere bai: Eguzkialdea, Ukulu eta Ugaldea urbanizazioak. «Guk dena herrigunea dela erraten diegu, baina eurek nahi bezala interpretatu dute legea», dio Pako Errandonea Sunbillako alkatea. Horietako batean, Eguzkialdean, postontzi kontzentratua paratua dute dagoeneko, Errandonearen hitzetan, «posta ez dutela banatuko erraten digute eta gabe gelditu aitzinetik mugitzen hasi gara». Buzoia paratzeko gastua auzotarrek ordaindu dute.

### BI URTE POSTA ETXEAN JASO GABE

Azken hiru hilabeteotan postontzi kontzentratuarekin funtzionatzen duen Sunbillako Eguzkialdeko auzotarra da Marisol Sanchez. Ez du gustuko neurria, bere hitzetan, bertze herritarrek bezala, berak ere etxean jasotzeko eskubidea duela: «zerbitzu guztiak herrigunean bezala ordaindu eta ailegatzeko zaizkigu, eta zergatik ez posta?». Baina halabarrez kutxatilatzea paratu dute. «Azken bi urteotan etxean posta jaso gabe egon gara, udaletxean, dendetan edo Doneztebeko Correosera joanez hartu dugu. Etxera ez ziguten ekartzen eta orain kutxatilatzean uzten digute».

Aldaketarekin zerbitzuak okerrera eginen duela iritzi dio Patxiku Irisarrik: «aunitzek karten bila joateko kotxea hartu beharko dute. Eskutitz bakoitzak helbidea eta seilua du, seilu horrek dirua bali du eta helbide horretara ailegatzeko ordaintzen da».

Neurri berriarekin, posta zerbitzuan «erregulartasuna eta eraginkortasuna» lortuko direlakoan dago Correos. Baina ez da iritzi berekoa Irisarri, guztiaren gi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat estilotako postontzi kontzentratuak daude. Argazkikoa Luzaidekoa da.

### Patxiku IRISARRI



### Etxalarko alkatea

«Guk ez dugu zerbitzu aldaketarik nahi, guk oraingoa mantentzea nahi dugu»

belean sektorearen liberalizazioa dagoela uste baitu: «hemendik urte batzuetara sektorea liberalizatu egingen da eta lehiakorrik izateko gastuak murriztu egin nahi dituzte. Bertzela, estatua seilua ireki beharko du». Gaineratu digunez, «eskutitz bat ere bidali ziguten, zerbitzu berriak eskaini eta langilegoa egokitze laguntza eskatuz, baina hori ez da gure errua, guk ez dugu zerbitzu aldaketarik nahi, guk oraingoa mantentzea nahi dugu».

Ez da Correosek halako zerbitzu egin nahi duen lehenbiziko aldia. Etxalarren, adibidez, duela sei urte egunero posta banaketa egin ezin zutela eta, Kontsumo Tartekaritza Batzordera jo behar izan zuen Udalak. «Astean hiru aldiz banatzeko gelditu ginen», kontatu digu Irisarrik.

Udalak eta herritarrak ez daude ados. «Kezka eragin du herritarrengan», diote Etxalarko eta Sunbillako alkateek. Errandonearen irudiko, horrelako aldaketekin «bertze mailako herritarrak garelako ikusten da. Hirietako auzo berrietan

### Pako ERRANDONEA



### Sunbillako alkatea

«Horrelako aldaketekin bertze mailako herritarrak garelako ikusten da»

posta banatu egiten da, eta herri tiki hauetan zer?».

Espainiar estatuan 5.500 «inguru berezi» zenbatuak ditu oraingoz Correosek, eta datozen hilabeteetan neurria indarrean paratuz joanen omen dira.

### UZTAILAREN 1ETIK AITZINERA ZER?

Zer gertatuko da uztailaren 1a ailegatu eta auzoetan postontzi kontzentratuak ez badago? Non jasoko dute auzotarrek posta? Ba Correoseko bulegoetan hartu beharko dute. Baina ez daude Udalak geldirik egoteko prest, eta zerbitzuak orain arte bezala segi dezan exijitzeko, «borrokan» segitzeko prest daudela aipatu digu Irisarrik. «Orain sei urte bezala sinadura bilketa egingen dugu; Kontsumo Tartekaritza Batzordera ere joko du eta hemen ez badigute gauza haundirik erraten, epaitegietara joateko ere prest gaudete, Etxalarko herria bakarrik edo bertze herriekin». Sunbillako alkatea, bere aldetik, zaila ikusten du neurria geldiaraztea, «akaso, denak bat eginez gero...».

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtatzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leizeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**2009ko harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizeta	30 €



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Euskarabidearen laguntza jaso du**



geure bezeroek aukeratutako proiektua can

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Polizia Baztanen nor babesteko? herritarrek erasotzeko!

Urte batzuk pasatu dire Elizondoko Santiago karrikan Foruzaingoen komisaria edeki zenetik. 2006ko abenduaren adostu zuten Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udalak komisaria berri hunen kokapena. 2007ko otsailean inaurguratu zuten Baztan-Bidasoa eta Ultzama eskualdeko biztanleak zelatzeko erabili den bulegoa. Orain 2010rako Foruzaingoaren Kuartel berri bat egin nahi dute Elizondon. Egitasmo huren aitzinean, Baztango Ezker Abertzaleak hauxe adierazi nahi du:

1.- Baztan bailara sobera militarizatu dago eta polizi gehiago ekarri izanak orain arteko presio polizial zapaltzailea haunditzea bertzerik ez du ekarri. Polizi gehiago ekarri izanak mehatxuak, isunak, jarraipenak, kontrolak, erasoak..... errepresio forma guziki haunditu ditu. Foruzainak izan baitire gazte bat «viva españa» ohikutzera derrigortu dutenak. Foruzainak ere bertze bati ikur abertzale bat soinetik kenarazi diotenak, eta Foruzainak berri bestatik heldu zen gazte bat zanpatu dutenak. Foruzainek, Guardia Zibilek eta Polizi Nazionalek helburu bera dute, bertzeak bertze: gazteak kontrolpean izan, izitu eta desmobilizatu.

2.- Gazteek jasaten duten zapalketa bortitzez gain, eraso faxistak

haunditu dira denean barna. Hainbat erakunde, herri ekimen, zein pertsona arruntak (hain zuzen, giza eskubide eta justizia sozialaren alde ari direnak) orain arte sekula ikusi ez den neurriko erasoak pairatzen ari dire. Erasotzaileek beren begi miran eta mehatxupean jarri dituzte etorkin, abertzale, errepublikar, kazetari, alkate, historialari, langile, zinegotzi eta abar. Azken erasoak Iurita eta Arraiozen izan dire, aintzinetik guttienez Bera eta Donezteben. Ez da herritzaile eraso faxista hauek orain eta inpunitate osoz gertatzea. Betitik eskutik hartuak ezagutu ditugu indar polizialak eta erasotzaile faxista inkontrolatuak. Kontrolatutako inkontrolatuak izan direlako erasoengileak. Eta hemen inoiz baino polizi gehiago dugun huntan indartsu eta babestuta ikusten dute beren burue.

3.- Baztango Udala Gobernuaren eskariari segituz, foru poliziak agertuz geroztik, Ezker Abertzaleak bere eza-dostasuna agertu du. 2007ko otsaileko inaurgurazio ekitaldian protestatzeagatik Ezker Abertzaleko hainbat militareri isunak paratu zitzaizkien. Agerikoa da gure herrietara polizi gehiago ekartzea arazo iturri gehiago ekartzea bertzerik ez dela. Deus konpondu ez eta gainera bizikidetzak gaixotu egiten baidute. Kuartelaren kontrako ekimenak astebeteko epean 700 sinadura bildu dituen udal agintariek jakin beharko lukete ezinezkoa dela holako proiektua herritarrei bizkarra emanaz gauzatzea. Eta

herritarren iritzia ez dela posible kuartel bat egiteko lurak 30 urtez Nafarroako Gobernuari uztea.

Hunengatik guziarengatik Ezker Abertzaleak bat egiten du Foruzaingoen Kuartelaren kontra sortu den herri ekimenarekin. Garbi adieraziz ez Elizondon, ez Baztanen, ez inon ere, ez dela herritarrek erasotzen duen poliziaren beharrik. Zorionak eman kuartelaren kontra buruturiko ekimenengatik. Elkartasuna adierazi eraso faxistak pairatutako guziei eta jakinarazi Baztango Ezker Abertzalearen babesa dutela eta izanen dutela hemendik aitzinera ere.

Adierazpenarekin batera eskaera hauek luzatu nahi ditugu:

-Baztango Udala, eta hau zuzentzen duen Nafarroako udal taldeari, lehenbailehen, abiatutako pausuetan gibelera egin dezan, herriarena den lur eremuaren zesoaren inguruan hartutako erabakia zuzendu eta herritarren artean sortutako kezka eta asaldura baretu dezala.

-Baztango UPNri, Estatu Espainolak diseinatutako politika errepresiboaren betetzean duen arduraz hausnartu eta gibelera egin dezan.

-Baztango herritarrei, orain arte bezala, mobilizatzen segitzeko eskatzen diegu. Eta parte hartu dezatela bidegabekeria berri hauen aitzinean burutuko diren mobilizazio, agerraldi eta bertzelako ekimenetan.

**Karlos Beristain  
Baztango  
Ezker Abertzalea**

### Hitz egin dezagun euskaraz

Berako Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu berri dela eta etxetara bidali dituden berripaperira irakurri dut. Harrituta gelditu naiz Berako zinegotziak eta Etxalarko alkateak gauregungo Euskararen erabilpenari buruz adierazitakoarekin:

«Eskualdean, berri, denetik dago, erdaldun kopuru handiak ere bai. 60ko hamarkadan jende dezente etorri zelakoz kanpotik eta hori gaur egun nabaritzen da». «Bera,..., Bortzirietako handiena eta industrializatuena da, eta horrek kanpoko jende asko sartzea ekarri du, horrek hizkuntza alorrean dakartzan eragozpen guztiekin».

Hitz horietan, nik ulertzen dut kanpotik etorritako jendearen ondorioz dela gaurko Euskararen egoera ez ona eta hori bada adierazi nahi dena, ideia horretan akats handia dagoela adierazi nahi dut.

1946. urtean Beran jaio eta haurtzaro eta gazte garaian bertan bitutua naiz, beraz, ongi ezagutzen dut zein zen Euskararen erabilpena 60ko hamarkada baino lehen. Ba urte haietan base-errietan hitz egiten zen Euskaraz, baina Berako denda eta karraketan gaztelaniaz bakarrik hitz egiten zen. Guraso eta zaharrek ederki zekiten Euskaraz, baina gehienek ez zieten beren umeei erakusten. Zergatik? Hori ez dakit, beraiegi galdetu behar. Sasoi hartan haur ziren zenbait beranduago



## • IRAKURLEAK MINTZO •

meritu ederrekin Euskara ikasitakoak ere badira.

Etxalarrera joaten nintzen tarteka eta egoera antzekoa zen. Ez horrela Lesakan, nonahiko bestetan jendea Euskaraz sumatzen bagenuen bagenekeen lesakarrak zirela.

Etorkeinei buruz, gehienek beren umeak Euskara ikas dezaten saiatzen dira. Zenbait heldu ere badago euskalduntzen saiatzen dena klasetara joanez e.a., baina zailtasun handia aurkitzen dute bertako euskaldunek ez diegulako pazientziarekin beren euskara eskasa onartzen. (Ikasketa guztiek bezala praktikatu ikasten da).

Eta azkeneko eta garrantzitsuena: zergatik ez dugu onartzen «hizkuntza bat ez da galtzen ez daki tenengatik, jakin eta hitz egiten ez dutenengatik baidik»?

Hitz egin dezagun euskaraz ahal dugun guztietan eta guztiekin.

**M<sup>re</sup> Carmen Lanz Bera**

### Doneztebeko kiroldegiaren haunditzearen gibelego atea...

A zer nolako meritua, jendearen eskaeren araberako instalazio anitz eta ugariak izatea ... Kirol alorrari erreparatu gero, Donezteben eskaintza zabala dugu, nahi duenak bere gustoko kirola egin ahal izan dezan. Kirol horien guztien artean, judoa dago. Jarraian hau, norbanako pribatu batek eskaintzen du, eta lehenago eskola-guneko gimnasioan ematen zen. Duela urte batzuek hona, ez urte sobera, kiroldegiaren aldamenean hortarako prestatutako gela batean ematen hasi ziren juldoko orduak.

2008 urtean, krisia ailegatu zen. 2009 urteak, krisiaren larritze bat ez ezik, ZPren laguntzak ekarri dizkigu: Donezteberendako 269.376 eurokoa izanen da laguntza hori.

Kasualitatez edo, udaletxeak, alkatea buru dela, berehala sortu du diru hori guztia xahutzeko behar larri bat: kiroldegia haunditzea, judoa praktikatzeko 120 metro koadroko bertze anexo bat sortuz. Udaletxeak haunditze honen beharra argudiatzeko, eskaera haundia dagoela erratan du, eskaera haundi honen nondik norakoak batere dokumentatu gabe.

Herrian dauden behar guztiak ongi aztertu ostean, hau da udaletxearendako dagoen beharrik premiazkoena.

Kiroldegiaren handitzearen beharra benetako bada, logikoena jarraian ematen duen eskola pribatuak, bertze instalazio publiko bat edota lokal pribatu bat bilatzea izanen zen. Gai honen ez du sobera usain onik, kalifikatibo iraingarriagorik ez erabiltzearen.

Enpresa pribatu batek erabiliko duen lokal bat eraikitzeko diru publikoa inbertitzea... Ho-

nek izen bat dauka: interes partikularren mesedetan, diru iturri publikoen malbersazioa.

Gure informazioaren arabera, Estatuak emandako dirulaguntzak, ez du proiektu osoaren kostua betetzen. Udalak duen zorra 2008ko abenduaren 31n, 467.000 eurokoa da, errespetatzeko moduko kantitatea inondik inora. Edonola ere, garaian, baina areago krisi garaian, kantitate hau kontrolik gabe haunditzeak, baliabideak gaizki kudeatzen ari direla adierazten digu, are gehiago behar handirik ez duten proiektuetan inbertituz hazten badira...

Honen ildotik trafikoa berrantolatzeke egin behar diren inbertsioetaz ere solas dezakegu, zerbait egin beharrenekin egin beharraz eginiko plana iruditzen baitzaigu, haur aunitz dabilen tokietara ibilgailuak eramanez, eta gaur egungo arazoak partxe probisional bat jarri eta honek iraun bitartean, soluzio probisional

emanez...

Alkate jauna, berorrek udaletxean daukan lana, udaletxea zuzendu, eta herriaren mesedetan aritzea baino ez da, ez zergak ordaintzen ditugunon dirua xahutzea. Gizabanako zintzoek herriari entzun egiten diote, herriaren jakinduritik zerbait ikasi nahian. Informatikako hizkera ahotan hartuta, ezaba beza proiektu hau, eta igorri beza birziklatzeko zabor ontzira... Gerta baitaiteke, zuzenbidean jantzitako norbaitek, gaian gehiago sakondu, eta berorrendako gustuko ez diren gauzak topatzea. Alkate jaunaren curriculumean ez luke batere txukun emango...

**Doneztebeko Elizagibela 5eko bizilagunak H 31711138**

**ERROTAZAR HARATEGIA**  
Eztegara, 3 • BERA • Tel / Faxa 948 630 088

**USOA** nekazarri kooperatiba  
ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 • ITXALAR

**carnho**  
gintza dindaga  
21. urteagatik 251 berraztegi  
948 630 088  
www.carnho.net

**LEGARRA**  
Produktu batzuetan kolore baikoitzak bere deskontua du:  
**DESKONTUAK**

- -60% eta -50%
- -40 % oparietan
- -30 %
- -20 % oparietan

Tel/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

**KIRALI**  
Alkate 1 • BERA  
Tele: 948 631 400

**Javier Manterola**  
Tebako instalazioak  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa  
Tfona: 629446602 • BERA

**PAGOLA EMBUTIDOS**  
artesanoak desde 1940  
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

## EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

# Hamar lagunetik lauk baino ez du bozkatu eskualdean Europako hauteskundeetan

Iniziatiba Internazionalista eta UMP izan dira bozkatuenak

## ttipi-ttapa

Europako Parla-menturako hauteskun-deak egin ziren ekainaren 7an eta orokorrean eta eskualdean ez zuten arrakasta haundirik izan. Banaz bertze, %63,75eko abstentzioa izan zuten Ttipi-Ttapak

Hego Euskal Herrian hartzen duen eremuan, eta %40,67koa Ipar Euskal Herriko eremuan. Zenbait herritan, hirutik batek bertzerik ez zuen eman botoa. Eskualde osoan, parte-hartzeak abstentzioa gainditu zuen herri bakarra Goi-






zueta izan zen, %54,13ko parte-hartzearekin.








Datu guztiak aintzat hartuta, Hegoaldean, Iniziatiba Internazionalista izan zen botatue-na eta Alderdi Popularrak bigarren indarra. Eskualdez eskualde, Bor-

tzirietan eta Leitzaldean ere bai. Alderdi Popularrak Baztan, Urdaubi, Zugarramurdi eta Bertizaranan eta Malelrekan herriaren arabera, datuak diferentek izan ziren.

Azkainen eta Senperen, bertzalde, UMP

alderdia izan zen bozkatuena eta Saran, al-diz, Euskal Herriaren alde. Nabarmenezkoa, halaber, Europe Ecologie alderdiak izandako gorakada, hirugarren indar izatera pasatu baita eta alderdi sozialis-taren beherakada.

Zentsoa	Parte-hartzea %	Abstentzioa %	 II-HE	 PP	 ARALAR-EA	 PSOE	 EAJ-PNV	Bertzak	Baliogabeak	Zuriak	
ARANO	123	31,71	68,29	16	0	15	1	7	0	0	0
ARANTZA	560	39,46	60,54	95	18	27	11	65	2	2	1
ARESO	248	40,76	59,24	61	16	16	6	7	1	0	0
BAZTAN	6.360	34,92	65,08	511	710	287	299	141	206	38	29
BEINTZA-LABAIEN	220	22,27	77,73	6	21	7	8	3	4	0	0
BERA	2.869	33,71	66,29	290	163	162	186	96	28	7	12
BERTIZARANA	511	33,27	66,73	38	39	34	32	11	13	2	1
DONAMARIA	338	42,00	58,00	36	33	29	22	15	5	0	2
DONEZTEBE	1.156	33,65	66,35	56	123	79	72	28	17	11	3
ELGORRIAGA	166	41,57	58,43	24	15	17	8	1	1	2	1
ERATSUN	159	30,19	69,81	3	10	17	3	12	5	1	0
ETXALAR	652	36,80	63,20	94	63	34	26	15	6	0	2
EZKURRA	168	30,95	69,05	22	10	1	10	3	6	0	0
GOIZUETA	678	54,13	45,87	270	11	45	11	22	2	6	0
IGANTZI	504	44,25	55,75	60	42	23	51	34	7	2	4
ITUREN	405	34,07	65,93	58	10	44	15	8	1	0	2
LEITZA	2.413	39,83	60,17	506	135	137	83	58	24	8	10
LESAKA	2.262	41,34	58,66	314	119	137	128	196	23	14	4
OITZ	121	34,71	65,29	16	3	9	6	5	1	0	2
SALDIAS	120	27,50	72,50	10	4	6	7	2	4	0	0
SUNBILLA	592	30,24	69,76	48	30	54	26	10	8	3	0
URDAZUBI	314	43,95	56,05	7	56	28	22	17	7	0	1
URROTZ	151	25,17	74,83	5	12	7	6	5	3	0	0
ZUBIETA	255	34,51	65,49	54	5	12	7	7	0	1	2
ZUGARRAMURDI	179	45,25	54,75	11	23	17	14	3	4	2	7
Denetara	21.524	36,25	63,75	2.611	1.671	1.244	1.060	771	378	99	83

Zentsoa	Parte-hartzea	Abstentzioa %	 UMP	 EHA	 E. Ecologie	 UDF	 UDF-MoDem	 PS	 EAJ-PNB	Baliogabeak Zuriak Bertzak	
AZKAINA	3.169	45,12	54,88	469	152	195	114	118	104	278	-
SARA	1.870	37,01	62,99	136	204	73	26	29	121	103	-
SENPERE	4.070	39,88	60,12	417	187	263	152	127	87	390	-
Denetara	9.109	40,67	59,33	1.022	543	561	292	274	312	771	-





Lesakako  
Sanferminak  
2009





 **TALLERES FRAIN**  
LESAKA - Tel.: 948 637 525  
Ongi pasa bestak!

 **BAR FRONTÓN**  
PLAZA BERRI 10/11/12/13/14/15/16/17/18/19/20/21/22/23/24/25/26/27/28/29/30/31/32/33/34/35/36/37/38/39/40/41/42/43/44/45/46/47/48/49/50/51/52/53/54/55/56/57/58/59/60/61/62/63/64/65/66/67/68/69/70/71/72/73/74/75/76/77/78/79/80/81/82/83/84/85/86/87/88/89/90/91/92/93/94/95/96/97/98/99/100/101/102/103/104/105/106/107/108/109/110/111/112/113/114/115/116/117/118/119/120/121/122/123/124/125/126/127/128/129/130/131/132/133/134/135/136/137/138/139/140/141/142/143/144/145/146/147/148/149/150/151/152/153/154/155/156/157/158/159/160/161/162/163/164/165/166/167/168/169/170/171/172/173/174/175/176/177/178/179/180/181/182/183/184/185/186/187/188/189/190/191/192/193/194/195/196/197/198/199/200/201/202/203/204/205/206/207/208/209/210/211/212/213/214/215/216/217/218/219/220/221/222/223/224/225/226/227/228/229/230/231/232/233/234/235/236/237/238/239/240/241/242/243/244/245/246/247/248/249/250/251/252/253/254/255/256/257/258/259/260/261/262/263/264/265/266/267/268/269/270/271/272/273/274/275/276/277/278/279/280/281/282/283/284/285/286/287/288/289/290/291/292/293/294/295/296/297/298/299/300/301/302/303/304/305/306/307/308/309/310/311/312/313/314/315/316/317/318/319/320/321/322/323/324/325/326/327/328/329/330/331/332/333/334/335/336/337/338/339/340/341/342/343/344/345/346/347/348/349/350/351/352/353/354/355/356/357/358/359/360/361/362/363/364/365/366/367/368/369/370/371/372/373/374/375/376/377/378/379/380/381/382/383/384/385/386/387/388/389/390/391/392/393/394/395/396/397/398/399/400/401/402/403/404/405/406/407/408/409/410/411/412/413/414/415/416/417/418/419/420/421/422/423/424/425/426/427/428/429/430/431/432/433/434/435/436/437/438/439/440/441/442/443/444/445/446/447/448/449/450/451/452/453/454/455/456/457/458/459/460/461/462/463/464/465/466/467/468/469/470/471/472/473/474/475/476/477/478/479/480/481/482/483/484/485/486/487/488/489/490/491/492/493/494/495/496/497/498/499/500/501/502/503/504/505/506/507/508/509/510/511/512/513/514/515/516/517/518/519/520/521/522/523/524/525/526/527/528/529/530/531/532/533/534/535/536/537/538/539/540/541/542/543/544/545/546/547/548/549/550/551/552/553/554/555/556/557/558/559/560/561/562/563/564/565/566/567/568/569/570/571/572/573/574/575/576/577/578/579/580/581/582/583/584/585/586/587/588/589/590/591/592/593/594/595/596/597/598/599/600/601/602/603/604/605/606/607/608/609/610/611/612/613/614/615/616/617/618/619/620/621/622/623/624/625/626/627/628/629/630/631/632/633/634/635/636/637/638/639/640/641/642/643/644/645/646/647/648/649/650/651/652/653/654/655/656/657/658/659/660/661/662/663/664/665/666/667/668/669/670/671/672/673/674/675/676/677/678/679/680/681/682/683/684/685/686/687/688/689/690/691/692/693/694/695/696/697/698/699/700/701/702/703/704/705/706/707/708/709/710/711/712/713/714/715/716/717/718/719/720/721/722/723/724/725/726/727/728/729/730/731/732/733/734/735/736/737/738/739/740/741/742/743/744/745/746/747/748/749/750/751/752/753/754/755/756/757/758/759/760/761/762/763/764/765/766/767/768/769/770/771/772/773/774/775/776/777/778/779/780/781/782/783/784/785/786/787/788/789/790/791/792/793/794/795/796/797/798/799/800/801/802/803/804/805/806/807/808/809/810/811/812/813/814/815/816/817/818/819/820/821/822/823/824/825/826/827/828/829/830/831/832/833/834/835/836/837/838/839/840/841/842/843/844/845/846/847/848/849/850/851/852/853/854/855/856/857/858/859/860/861/862/863/864/865/866/867/868/869/870/871/872/873/874/875/876/877/878/879/880/881/882/883/884/885/886/887/888/889/890/891/892/893/894/895/896/897/898/899/900/901/902/903/904/905/906/907/908/909/910/911/912/913/914/915/916/917/918/919/920/921/922/923/924/925/926/927/928/929/930/931/932/933/934/935/936/937/938/939/940/941/942/943/944/945/946/947/948/949/950/951/952/953/954/955/956/957/958/959/960/961/962/963/964/965/966/967/968/969/970/971/972/973/974/975/976/977/978/979/980/981/982/983/984/985/986/987/988/989/990/991/992/993/994/995/996/997/998/999/1000

**IGOMAR S.L.**  
igeltseritza orokorrean  
Gora San Fermin !!!  
948 637 873  
948 637 320  
LESAKA

 **INDARRI**  
Hotz komertziala eta industriala  
Aire girotua  
Tel: 948 630 898  
Mug: 639 103 305 BERA  
ONGI PASA BESTAKI

**FAGOAGA HARATEGIA**  
Aupa San Fermin !!  
Albatur, 17 - 948 63 78 69 - LESAKA

**Barceló**  
BIDAIK  
ONGI PASA BESTAKI  
Plaza Zaharra, 4 • 31776 LESAKA (Nafarroa)  
Tfnoa: 948 638 179 • lesaka@barceloviejes.com

 **BEKO**  
Lore eta landareak  
Ongi pasa Sanferminak  
Frain auzoa - LESAKA - Tfnoa: 948 637 826

# Lesakako bestak

**“Aurrekontua erdira jautsi da, baina besta giroak diruarekin zerikusirik ez duela ikusiko da aurten”**



**Koldo ERKIZIA**  
Lesakako alkatea

Lesakako Sanfermin bestetako egitaraua prest du Herriko Etxeak, eta horretarako, udal aurrekontu osoarekin bezalaxe, gerrikoa estutu behar izan dutela aipatu digu Koldo Erkizia alkateak: *“Joan den urtean 130.000 euro gastatu ziren eta aurten 63.000 euroko gastua aurreikusi dugu, erdia”*. Halere, ekitaldietan ez da murrizketarik somatuko, handik eta hemendik kenduta, egitarau berdintsua mantenduko baita. Adibidez, festetako diruzati handia eramaten duten betizuak berdin mantenduko dira, peñen eguneko arratsekoa barne. Plazako musika ere egunero izanen da, pilota partiduak, trikitixa txapelketa, bertso saioa... Beraz, murrizketak bertze alde batzuetatik bilatu behar dira. Errate baterako, garbiketa lanetara bideratutako diru saila murriztu du Udalak: *“Alde batetik, igande goizeko garbiketa lanak ostatuek hartu dute bere gain, baita larunbateko musikarena ere. Joan den urteko Sanferminetako garbiketa lanen aurrekontua 40.000 eurokoa izan zen eta aurten 10.000koa da. Lehen kanpotik ekartzen zen enpresa bat eta orain bertako jendearekin eginen da, Transtxakain eta Aspacerekin, eta dexente merkeago eginen dute”*. Beraz, larunbateko ospakizunen antolaketa ostatuek eginen dute, udalarekin egindako bileran hartutako akordioaren arabera. *“Guk -dio alkateak- 63.000 euro horietatik xentimo bat gehiago ere ezin dugu gas-*







Joan den urtean, Xalbador Madariaga akordeoi taldeko zuzendariak bote zuen txupinazoa, omenaldia jaso ondotik. Aurten ere herriko pertsonai ezagun batek botako omen du.

**tatu. Beraz, ostatuekin bildu eta soluzio bat bilatu diogu”.**

Bertze aldetik, otordu, luntx eta bazkarietan ere murriztu dutela jakinarazi digu Erkizia: **“Azken finean, ekitaldien ondotik izaten diren luntx horiek parte hartu dutenak bildu eta elkarrekin trago bat hartu eta solasteko izaten dira, eta tope batzuk paratu dira. Denak egin egiten dira, baina pixko bat estututa. Inguruko Herriko Etxee-kin egiten dugu bazkaria ere mantenduko dugu, baina hor ere otordu xumeagoa izanen da. Lehenago langosta eta guzi jaten zen, baina hori iaz kendu zen. Azken finean guk ere ejemplo eman behar dugu: bazkari ona eta nahikoa izanen da, baina inolako exageraziorik gabe”.**

Musika arloan ere sakelari begiratu behar izan diotela onartu digu Koldok: **“Arratsetako berbena taldeekin prezioak negoziatu ditugu eta jautsiera batzuk lortu dira; 5.000 euro kostatzen zen mariatxirik ez dugu ekarriko aurten, peñen eguneko arratseko**

**batukadarik ere ez”.** Krisi garaiko aurrerontua izan arren, besta giroan ez dela krisirik somatuko uste du Lesakako alkateak. **“Aurten garbi ikusiko du diruarekin ez dela besta egiten. Lesakako sanferminak dagoen giroarengatik eta besta egiteko gogoarengatik dira ezagunak eta diru guttirik bada ere bestak berdin berdinekin ahal direla ikusiko dugu, diru aunitzekin baino hobekiago seguruaski. Diruarekin ezin da karriketako girorik erosi!”.** Koldo Erkizia berari peñaren eguna da gehien gustatzen zaiona, nahiz eta orain, betetzen duen kargua dela eta, San Fermin eguna gehiago bizitu. **“Peñen eguna ederra da, baina orain, alkate bezala desberdina da. Lehen ez nion kasu gehiegirik egiten, baina San Fermin egun osoa gehiago bizitzen dut eta izugarri polita da. Orain peñen eguneko danborrada eta jautsiera eta horrelakoak guttiago bizitzen ditut, behar bada alabarekin eta, haurren eguna gehiago ezagutzea suertatuko zait”.**



**antzerdaki: shizpak**  
Estelita Zentilak - Jaipolindaga

Azi eta garputz tratamenduak  
Depilazioa  
Solariuma - Makillajea  
Pedikura - Manikura

Albistur 39  
31770 Lesaka  
Tel: 948 637 203

**Dia %** Sanferminetan otordu goxoak prestatzeko  
**LESACA LESAKAKO DIA**

**Dia %** Plaza Berria, 10 - 948 637 335

**GARBILEKU**  
Garbitegia Lesaka

Plaza Berria, 10 · Tfnoa: 948 637 438

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESACA

IMANOL TELLETxea ZOZAYA  
Tel: 948 63 74 00  
31770 Lesaka (Navarra)

**Kalefakziorako Gasoila etxez etxe banatzen da**

**Besta ederrak pasa !**

**Aliprox**

Zure marka berria liderra den talde baten babesarekin

Urdatagia Harategia  
Arraindegia Frutategia

948 637 264  
Bittiria, 67 · LESACA



**MARMOLES**  
**ALKAIAGA, S.L.**

Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan

**ONGI PASA BESTAK!**

Alkaiaga ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) - LESAKA  
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063  
Mug: 609 207 731  
marmolesalkaiaga@telefonica.net

## Lesakako bestak

uztailak **03** ORTZIRALA

20:00 Plaza Zaharrean, Lesakako Musika Bandaren emanaldia.

uztailak **04** LARUNBATA

15:30 Illasmendiko tiro-eremuan Plater Tiro Lehiaketa, Pagolleta Ehizi Elkartek antolatuta.

16:30 Frontoian, Arkupe Elkartek antolatua, haurren pilota erakustaldia.

uztailak **05** IGANDEA

18:30 Plaza Zaharrean XII. Trikitixa Txapelketa.

uztailak **06** ASTELEHENA

12:00 Herriko-Etxetik igokodenaltxaferoaren ez tandak emanen die hasiera aur-tengo besteei. **Ordu berean** txistulariek, soinulariek, "IZADI" txarangak, trikitulariek eta haur ttikien danborradak girotuko dizkigute herriko kaleak euren soinu alaiekin.

17:30 Frontoian, "Tantirumairu Euskal Folklore Taldea"ren erakustaldia.

20:00 Peña guztien ordezkariak altxaferoa bota **ondoren** danborrada nagusia abiatuko da, Erraldoieta Buruhandi, danbor-joleetasoinulari, Lesakako Banda eta guzti, herri osoari itzulia emanez kalez kale.

0:00 Musika Plaza Zaharrean, "TRIKI TAKE" taldearekin. "IZADI" txaranga kalez kale.



**Mikel UBIRIA**  
eskabazioak

eskabazioak eta garraioak

Tel: 948 637 214  
Mug: 619 716 322  
608 779 641  
Bitorria plz. 8 - LESAKA

Imaginazioa mugirik gabe

Ongi pasa San Ferminak!!!

**ORNOZ**  
ARGAZKIGINTZA

ornoz@telefonica.net

Plz. Zaharra, 11 - LESAKA - 948 637 593 - 620 056 739

**JOISA**



**ARROZTEGIA**  
**ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**  
**MAKINA ERREMINTA**

Barandak, balkoiak,  
hesiak, forja artistikoa...

ADU 16 Pol. Ind.  
LESAKA 31770  
Nafarroa

Tel.-Faxa: 948638158  
Mugik.: 646774117



uztailak **07** ASTEARTEA

**8:30** Ezpatadantzarien meza ixila. Joan-etorria Txistulari bandaren laguntzaz egingen da.

**10:30** Udaltzako bertze agintariekin, Ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aintzinean dituztela, abiatuko dira Herrikoetxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza **ondotik**, Fermin Zaindarien irudiarekin herri guztitik prozesioa. Ibilaldia berriro Elizan burutu ondoren, Udaltzako, lehen aipatutakoekin, mezara joan diren moduan jaitsiko dira Eskolttikira, Onin errekaaren bi aldeetan egiten den "ZUBIGAINEKOA" dantza ikustera, XV. mendean lesakarren artean lortu zen bakea oroitarazten diguna. Berehala, Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko-etxera igan aintzinean.

**18:00** Bezperak: Elizarako eta Elizatiko joan-etorria Meza Nagusira bezala egingen da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzakkantatukodu. Bezperak akitu **ondoren**, eta ohiturari jarraituz, Ezpatadantzari taldeak MUTILDANTZA, NESKADANTZA, AURRESKUA eta JOTAK dantzatuko ditu Plaza Zaharrean.

**19:30** Plaza Zaharrean, bertso jaialdia, Arrano Elkarteak antolatua: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Xabier Silveira, Julio Soto eta Erika Lagoma. Gai-jartzailea: Estitxu Arozena.

**Gauetz** Musika Plaza Zaharrean, "TRIKIDANTZ" taldearekin. Egun guztian, "IZARDI" txaranga kalez kale.



**IÑAKI** Arretxea, 12  
948 638 287  
janaridenda

**IRU BIDE** Entregia - Avador  
Blurrana, 3  
LESAKA  
Tel: 948 637 127

**Pinpirin**  
ILEPAINDEGIA  
Plaza zaharra 26  
31770 LESAKA  
Tfnoa: 948 63 80 37  
Banda ongi  
para terminak!

**IÑAKI**  
**OLAIZOLA**  
elektrizitatea orokorrean  
GORA SAN FERMIN  
Bittiria, 39 - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 405 - 670 417 499

**BORTZIRI**  
**UNSION ANAIAK**  
Sukalderako altzariak  
ONGI PASA BESTAKI  
Bernau etxea - LESAKA  
Tel: 948 637 206 - 607 226 891 - Fax: 948 637 511

ongi pasa  
san terminak!  
**IZARRA**  
T. 948 637 855 - Plaza Zaharra, 13 - LESAKA



ONGI PASA BESTAK!



◀◀◀◀◀◀ H I R U K I D E ▶▶▶▶▶▶▶▶

Eguzki panelak ◀▶ Iturgintza  
 Industria mantenimendua ◀  
 Are egokituak ◀  
 Elektrizitatea ◀

T. 948 625 395  
 Zalan Industrialdea 42 B - 15 • 31760 BEÑA (Nafarroa)  
 Fax: 948 625 392 • email: betizuak@terra.es

ongi pasa bestak

**oreka**

nutrizioa eta dietetika  
 Sandra Legasa Ross  
 dietista eta nutricionista dietetikoak

dieta pertsonalizatuak

produktu ekologikoak  
 kosmetika naturala  
 sandabelarrak  
 elikadura

T 948 63 73 73  
 amateas 7 • 31770 LESAKA  
 oreka.nutrizioa@hotmail.com



**TRANSTXAKAIN**

TRANSTXAKAIN LL  
 JESUS ARAMBURU ALZUGARRY

Gora Gari Fermin!



Otsango industrialdea 14 nabea · LESAKA  
 ☎ 948 638 052 · 669 840 198  
 Fax.: 948 627 578 · transtxakain@yahoo.es

**ainhoa**  
 estilista

RUTH ILEAPAINDEGIAN  
 betiko tokiari aurkituko gaituzue!!



ONGI PASA BESTAK

Betoria 59 • LESAKA • 948 637 436

# Lesakako bestak

«Betizuak peñan bizpahiru kuadrila elkartu ginen, eta parranda eginez harremana sakondu genuen»



Julian IANTZI  
 Betizuak peñako kidea

Gero eta ugariagoak dira peñak Lesakan. 1980. hamarkada arte Irrintzi, Kalaxka, Egurra edo Agiña historikoak ziren Sanferminetako peña bakarrak. XXI. mende hasieran berriz, hainbetez sortu dira, gazteenen eskutik: Altxadi, Edozein, Erretiradi... Tartean, 1980 eta 1990 hamarkadetan sortuak ere badira bertze batzuk, Baikorrak, Bittiria, Kilkerrak... Horietako batek, Betizuak peñak 25 urte beteko ditu eta mende laurdena hori behar bezala ospatzeko, bazkari berezia egingen dute peñen egunean eta kamixetak ere aterako dituzte propio. 1985ean sortu zenean, ehun lagunetik goiti izan zirela gogoratzen du Garbiñe Sarasola peñakideak, baina *“aurtego bazkarirako 25 lagunek hartua dute txartela eta bertze hamar zalantzan daude”*. Izan ere, garai txarra egokitu da, inguruko lantegi gehienak lan erregulazio espeditetan sarturik baitaude, eta horrek, sakelean ez ezik bestarako animoan ere eragina dauka. *“Gainera, peñakide aunitzek seme-alabak ditugu eta horrek bertze azpiegitura eskatzen du, senar-emazteek parranda egiteko aitaxi eta amatxi haurrekin gelditzeko prest egotea, alegia”* dio irriz bertze peñakide batek, Julian lantzi telebista aurkezle ezagunak. Bidasoako Izokinaren Kofradiako ohorezko kide egin berriren, ekainaren 29an bertze sari garrantzitsu bat eskuratzekotan da lantzi Espainiako







Goitian, Betizuak peñako kideak 1985eko peñen egunean, lehenbiziko urtean. Aitzineko orrian eta beheitian, Betizuak peñako kideak, joan den urteako peñen jautsieran eta danborradan. Aurten, bazkari berezia izanen dute 25. urteurrena ospatzeko.

Telebista Akademiatik, "El Conquistador del fin del mundo" saioak, autonomiatako entretenimendu saiorik onenaren saria jasoko baitu. "ETBko programa batek sari hori lortzen duen bigarren aldia da, aitzinekoan Oscar Terolek aurkeztzen zuen Vaya Semanita saioak lortu zuen" dio kontent aurkezle lesakarrak.

### Betizuak peñak 25 urte

Telebista kontuak alde batera utzita, peñaren hasierako garaia ongi gogoratzen ditu lantzik: "Koteto, Ana Trigueros eta kuadrila horrek hartu zuen peña antolatzeako ardura, bazter guziak mugitu zituzten, izena erabakitzeko ere bilerak egin ziren eta jendea animatu zen". Ohartu gabe mende laurdena bete dutela eta harritua gelditu da Julian. "Bizpahiru kuadrilla elkartu ginen peñan, eta aitzaki horrekin, parranda eginez elkarren arteko harremana sakontzeko baliagarria izan zen". Ordura arte ez zen peña bakar bateko kide ere izan lantzi, "gauza berria zen neretzat, ordura arte nahiko anarkikoa nintzen, etxetik atera eta bueltatzen nintzenean bueltatzen nintzen, dena soberan izaten genuen... Peñarekin hasi ginenean beti blusa eraman behar izaten zen, gerrian lotuta bazen ere eta gustora! Lo-kuluxka batzuk egiteko ere aski egokia da". Azken urteetan, lana medio, ez du parte hartzerik izan peñen egunean eta aurten ere zail izanen du, "zenbait proiektu badituz eskuartean eta bakarren bat gauzatuko da seguruenik", baina urteurren borobila denez, bazkarira agertzen saiatuko dela aipatu digu, "nahiz eta postrea hartu orduko lasterka abiatu". Halere, hori Sanfermin guziak kanpoan pasatzea baino gogorrago egiten zaiola onartu du, "behin hemen txupinazoa ikusi eta lagunekin edo familiarekin bazkaldu eta giroan sartua zaudenean lanera joatea hagitz gogorra da".

Peñakide ez ezik, ezpatadantzari ere izana da urte mordoxka batean Julian

lantzi eta hori hagitz berezia dela aipatu digu. "Goizetik sartzen zara giro horretan, lagunekin dantza egin, eguerdiko momentu hori zoragarria da: elizatik atera eta gurutzeak egiten hasten zarenean, kaleak jendez lepo, bertakoan eta kanpokoan animoak, Zubigainekoa... Niez naiz aunitz hunkitzen den horietakoa, baina Sanfermin egunean nabaritzen da barrenean zerbait. Alde batetik errekaraz ez erortzeko beldur hori, baina baita emozio hori, jende guzia zuri begira, familia, batzuk negarrez, izugarri polita da".

Sanferminetako programa nahiko osatua dagoela iruditzen zaio Julian lantziri, "azkenean denentzat zerbait izatea behar da, haurrentzat, gazteentzat, helduxeagoentzat, denentatik pixko bat, aurrekontuak agintzen du eta ezin da gehiago egin. Dantzek badute bere garrantzia, historiaren lekuko diren neurrian. Niri gauko parranda da gehien gustatzen zaidana eta hori ez da programan sartzen!".



**TRANSPORTES IRIGOYEN**  
629 592 215 - Buitrago auzoa, 1 - LESAKA  
ONGI PASTA BESTAK

Kiraztegi Auzoa, 6 Donostia eta Etxea 31770 Lesaka Nafarroa  
Tel: 948 627 554 - 656 763 186  
**Txus Ubiria Andueza**  
margoketa lanak - pintor

Txak - mantelariak - eloko maindruak  
eskolako harran mantelak etak...  
berdutzen ditugu, eta osasun Sanferminak  
irintzar dardela eta, komizak pako  
bakiatzen lagatzen, danbortzen  
lagatzen, zapiak eta pako bakiatzen  
blasi ere izanok berdutzen ditugu  
**ONGI PASTA BESTAK**

Tel: 948 627 660  
689 481 980  
etxeri  
Piza berria 4 - ca  
eta ikusi bertako  
eskaletz!!!

carniceria harategia  
**Esarte**  
ELIZONDO 948 580 128  
DONDIZTEBE 948 456 182

**Juan Luis Otxoteko**  
pintorea

Etxe barrunean  
eta kanpoko pintura  
Gotele  
Pintatutako papera  
Erpapelazkoak

Besta  
zoriontsuak  
pasat!

Estatu aurreratuak  
Inongo harremanezuzurik  
gabe.

Nafarroa, 678 993 818  
Buitrago 2638 Lesaka  
Tel. - Fax 948 637 982



## Lesakako bestak

uztailak **08** ASTEAZKENA

**9:00** Peñen gosaria.

**10:00** Peñen danborrada, "IZADI" txarangarekin.

**12:00** Betizuak, Plaza Zaharrea, "IZADI" txarangarekin.

**17:00** Plaza Zaharrea "ATXIKISTAN" haur ikuskizuna.

**18:00** Peñen kontzentrazioa "IZADI" Txarangarekin, Peñen jeitsierarako.

**20:30** Plaza Zaharrea, betizuak. "IZADI" txarangarekin.

**Gauerdian** Musika Plaza Zaharrea "IMANOL"-ekin.

uztailak **09** ORTZEGUNA

**10:30** Haur eta gurasoen danborrada "IZADI" txaranga lagunduta.

**12:00** Betizuak, Plaza Zaharrea. "IZADI" txarangarekin.

**Arratsaldez** Komentuan "Navar Producciones" haurren ikuskizunak: Puzgariak...

**18:00** Frontoian, eskuzko pilota partidu profesionalak.

**Arratsaldez eta gauetz** Musika, Plaza Zaharrea, "TRAKETS" taldearekin. "IZADI" txaranga kalez kale.



### ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarnitasun planak eta aurrekontuak

LESAKA: Bittirio, 71-behea  
Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 404  
MURLATA: La Viña, 4  
Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713  
artekari@artekari.com



## Lesakako bestak

uztailak **10** ORTZIRALA

**11:30** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Nafarroako Jotak, "BRISAS DEL ARGÁ" taldearekin. San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten Elkartek antolatua.

**12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean, "IZADI" txarangarekin.

**Arratsaldez** Tren turistikoa herrian zehar.

**18:00** Plaza Zaharrean, Nafarroako Jotak, "BRISAS DEL ARGÁ" taldearekin. Jubilatu eta Pentsionisten San Fermin elkarteak antolatua.

**18:00** Garai batean egiten zena gogoratzuz, Eskolttikitik Txakainera kalejira, Musika Bandarekin.

**20:00** Txakaindik jeitsiera, ZORTZIKO doinuarekin.

**Arratsaldez eta gauez** MusikaPlazaZaharrean, "JOSELU ANAIK" taldearekin. Ondoren "IZADI" txaranga.

**3:30** JAI-HILAK "IZADI" txarangarekin.

uztailak **11** LARUNBATA  
Lesakako ostalariek antolatua

**16:00** Akanpalekuan kuadrilen arteko herri kirol jokoak.

**19:00** PlazaZaharrean,dantzaldia"Garraxi"taldearekin

**Gauz** PlazaZaharrean,"DJBULL"eta"ARIMASUTAN" rock taldearen kontzertua

**Egun guztian zehar** kale animazioa.



News Adapted Presby OPTIC-OPTOMETRIST

**intzuri**  
OPTIKA

Biloba 36 - LESAKA  
t: 948 637550

garbiketak - limpiak  
**usi**  
ongi pasa bestak

**MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK**

- Bulegoak, portalak, etxeak, kristalak, garbiketak orokorra eta erakuntza lanetsakoa
- Industria-makinekin lan egiten dugu
- "Fregado en plano" delakoa
- Produktu profesionalak erabiltzen dituzte (akabak...)

T. 689 305 221 (Oihane) LESAKA

Gora San Fermin!

**udana**  
salazones

*Importazioko  
bakailu, gaztua,  
gaztua  
eta kongelatuak*



Alkaiaga Ind. • Lesaka  
Tel.: 948 631 536 • Fax: 948 631 550

**KASINO**  
OSTATUA - RESTAURANTE



**Jai alai eta  
pozgarriak  
izan itzazuen**

Plaza Zaharra • 948 63 72 87  
**LESAKA**



Semper

Internet bitartez egiteko aukera

**Semper**

BESTA ON BATZUK PASA ITZAZUE!

BERA Tfnoa/Faxa: 948 630 298

**autoeskola**

**OHANGO**

SAN FERMINetako bi menu desberdin!

www.ohango.com 948 630 136

Larunatak 11

**KONZERTUAK**



**“TELLETXEA”**

Lorazaintza

Penaltema • lorategiak diseinatzea eta sortzea  
ureztatze sistema automatikoak • kimaketak • mantentze lanak



Ohango Ind. 18 • LESAKA • T. 619 418 683 F. 948 637 049  
johntellexea@hotmail.com

**APITTU** ALUMINIOAK

ongi pasa San Ferminak!!

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,  
Ateak, Porteko itxidurak eta  
Barandilak

**XIXO** 626 312 326  
**JOSU** 626 313 162

Otxango auzoa, 7 - Pab  
T./F 948 636 297  
apittu@apittu.com  
31770 Lesaka (Nafarroa)

[www.apittu.com](http://www.apittu.com)

# Lesakako bestak

«Peñen jautsiera aunitz gustatzen zait, urte osoan lesakar guziok bat egiten dugun egun bakarra da»

Aurtengo Sanferminak iragartzeko kartelaren eta programaren azal lehiaketak irabazi ditu Virginia Etxepare Trigueros, 21 urteko lesakarrak. Donostian diseinu grafikoa bi urtez ikasi ondotik, orain Iruñean web-orriaren diseinua eta programazioa ikasten du, goi-mailako ziklo batean.

Hirugarren aldia da Sanferminetako lehiaketetara lanak aurkezteko dituela: «**Gazteagoa nintzenez, 14 urtetan aurkeztu nintzen behin, lehengo urtean berriz eta aurtengoa, hirugarrengoa irabazle!**». Lehiaketa bakoitzak 500na euroko saria zuenez, mila euro horiek Sanferminak «**ongi pasatzeko**» modua eskainiko diotela uste du Virginiak. Duela bi urte Donostiako Inauterietako kartel lehiaketara aurkeztu zuen lana finalista izan bazen ere, ez zuen saririk eskuratu.

Kartel lehiaketa irabaztea ez du ezustean harrapatu, «**hiru lan bakoitza aurkeztu zirela eta nereak bi zirela kontuan hartuz. Suerte pixko batekin irabazten ahal nuela pentsatzen nuen. Baina programako portadarena ez nuen espero. Bederatzi lan baziren**

**aurkeztuak eta bertze batena gustoko nuen. Nik ere bi lan aurkeztu nituen eta irabazi duenak baino bertzeak aukera gehiago zituela uste nuen. Zerbait komikoagoa egin nahi nuen, eta badirudi hori gustatu zaiola jendeari**». Izan ere, herritarrek konbentuan paratu zen erakusketan eta udalaren web-orriaren bitartez emandako botuen bidez aukeratu dira aurtengo kartela eta portada. Behin saria irabazita, aldeko eta kontrako iritziak aditu dituela aipatu digu Virginiak: «**Batzuk originala dela erraten naute, komiki antzekoa eta kontrakoek orain arte ikusi ez dena dela, zerbait formalagoa edo tradizionalagoa nahiago dute**». Tradizioak aipatuz, Iruñean entzierroa izan ohi den bezala, Lesakan kartelen gaia gehienetan ezpatadantzariak izaten dira: «**Hori da gure sinboloa, Lesakako Sanferminek berezia dutena, horregatik jarri dut kartelean**».

Sanferminei dagokienez, ez du inoiz hutsik egiten eta besta guziak Lesakan pasatzen ditu, lagunekin, familiarekin... Peñen eguna du gustokoena eta ongi daki zer diren peñak, gaztea izanik,



Virginia Etxeparek «Egun gorriak» lanarekin (ezkerrean) irabazi zuen kartel lehiaketa eta «Nora joan da?» lanarekin (eskuinean), portada lehiaketa.





**Virginia ETXEPARE**

Kartel eta programa lehiaketetako irabazlea

hiru peñetako kide izan baita: *“Ama Betizuak peñako sortzaileetako bat da, eta ttiki-ttiki nintzenean, 3 urterekin, blusa jartzen ninduen. Aita, berriz, Kalaxkako da eta pixko bat koxkortu nintzenean beraiekin ateratzen nintzen eta duela hiruzpalau urte gazteek eta lagunek Altxadi sortu zutenean bertan sartu nintzen. Peñen eguneko jautsiera hori aunitz gustatzen zait, lagunekin, peñarekin, dagoen giroa, nahiz eta peña ezberdinetakoak izan denak elkarrekin. Urte osoan lesakar guziek bat egiten dugun egun bakarra da, ttiki-*

*ak, gazteak, helduak... denak nahasian”.*

Amaren peñak 25 urte beteko ditu aurtten, aitarenak aunitz gehiago eta Altxadik ere *“25 eta gehiago”* beteko dituela uste du. Hemendik 25 urtera bere burua Sanferminetan nola ikusten duen galdetzerakoan, garbi du Virginiak: *“Haurrak izaten baditut aitaxi eta amatxiri uzten eta ni juergan, berdin-berdin!”.*

Egitarauan zerbait aldatzekotan, *“rock kontzerturen bat”* ekartzea gustatuko litzaioke Virginiari.



**ETXEPARE** anaiak  
Igeltzeritza orokorrean  
ongi pasa san ferminak  
Bilvia, 22 • LESAKA  
948 637 431 • 908 576 504

**Urdi Lesaka**  
BERRITASUN BERRITASUNAK / BERRITASUN BERRITASUNAK  
Gora san fermin!! eta ongi pasa bestak

**Matias MITXELENA** eraikuntzak  
Etxeak  
Zaharberritzeak  
Teilatuaak  
Tlf: 948 637 183 400 777 308  
LESAKA

Antoiu karrika  
948 637 949  
LESAKA  
ongi pasa san ferminak!!  
**Ibaiondo**  
janaridenda

**KATTU**  
OSTATU-JAETXEA  
MENUAK • PLATER KONBINATUAK • BOKATAK  
ONGI PASA SAN FERMINAK!  
Arretxea, 22 - Telf.: 948 627 573 - LESAKA

ttipi txartelaren  
**ZOKETAN** parte hartu nahi dut.  
Nola egin behar ote da?  
**OSO ERRAZA DA**  
Deitu  
948635458





## SOLUZIO EKOLOGIKOAK-TEKNOLOGIA ERAGINKORRA ETXERAKO ETA INDUSTRIALA INGURUMENA ETA ZURE OSASUNA ZAINDU



- Zure iturriko ura hobetu eta kontsumoa murrizten du.
- Etxeko berotasunaren kalitatea hobetzen du, egurra, gasoila, gasa, argindarra... aurreztuz
- Ibilgailuen emisioak hobetu eta erregaia gehiago aprobetxatzen du
- Errodiazio elektromagnetikoak kontrolatzen/neurtzen ditu egonean edo lanean zauden tokietan

*ongi pasa san ferminak!*

KONTSULTA-ERAKUSKETA: Otxango 28, Lesaka T. 948637713 M. 609115956 E. eco-soles@web.de W. www.eco-sol.info

- Baimen mota guztiak
- 5 eguneko teorikoa, intentsiboa
- Ordenagailu bidezko sistema berria

... eta hau guztia...

**GORA SAN FERMIN!**

baita EUSKARAZ ere!

Albistur 39-H - LESAKA Tel. 948 637 870 - 649 438 183



# LESAKAKO UDALAK

San Fermin zoriontsuak opa dizkie herritar eta kanpotik etorritako guztiei





## ERREPIDEA

### Bera-Irun errepide zatia ortziral honetan zabalduko dute

Igantzi-Bera zatia gibeleratua dago eta uda bukaerarako egina egonen dela dio Gobernuak

#### titi-ttapa

Bi urtez obratan aritu ondotik, N-121A errepidearen Beratik Irunerako zatia ortziral honetan, hilak 26, inauguratuko dute, eta beraz, egun horretatik aitzinera ibilgailuentzat zabalik egonen da. Joan den ortzegunean, ekainak 18, kargaren proba ere egin zuten. Doneztebe-ko Mariezkurrena enpresak egin ditu lanak.

Endarlatsatik Irunerako zati berriak 6,6 kilometro edukiko ditu eta 2,5 kilometro Endarlatsatik Bera artekoak. Zati gehienez, 4,4 kilometrotan, hiru errail izanen ditu bide berriak, horietatik bat aurreratzeko. Tuneletan, berriz, bi errail izanen ditu. Puntxas eta Behobia inguruan lau erreil izanen ditu, norantza bakoitzarentzat bi.

Bertzalde, aipatu, errepide berriarekin paralelo bidegorria egina dela.

#### BERTZE ZATIA GIBELERATUA

N-121Ako gainerako lanak, ordea, gibeleratuak doaz. Igantzi-Etxalar eta Etxalar-Bera za-

tikoak, alegia. Nafarroako Gobernutik adierazi dutenez, uda bukaerarako akituak egonen dira, nahiz eta hasieran apirilera eginak izanen zirela iragarri.

Zati horretako obrak aldi baterako enpresa-elkarte (UTE) baten esku dago, baina tartean enpresa aldatetak izan dira eta horrek ere eragina izan du atzerapean.

Igantzi-Etxalar zatiak 4,15 kilometro izanen ditu eta lau zubidere-



ARGAZKIAK: TITI-TTAPA ETA ALICIA DEL CASTILLO

Ortziralerako prest egonen da Endarlatsako zubi berria. Joan den ortzegunean kargaren proba egin zuten kamioiekin.

kin gurutzatuko du Bidasoa ibaia. Etxalar-Bera zatiak 3,72 kilometro luzera edukiko du

eta bortz aldiz gurutzatuko du Bidasoa.

### Lastaolako asfalto labea baimenik gabe dagoela salatu du Aralarrek

#### titi-ttapa

«N-121A errepideko lanak egiteko Irungo Lastaolan ezarritako asfalto labeak ez du jarduera eta ingurumen baimenik». Horrela salatu du Aralarrek. «Excavaciones Orsa SL enpresak ez du Irungo Udalean inolako baimenik tramitatu asfalto labea Lastaola baserriaren ondoan jartzeko, eta ez honek, ez Gipuzkoako Foru Aldundiak, ez Eusko Jaur-laritzak ez dute inolako trabarik jarri. Asfalto fabrika baimenik gabe ari da lanean». Aralarri «la-

rria» iruditzen zaio egoera, «lau administraziok bertze aldera begiratu dutelako: Irungo Udalak bere lur eremuan dagoelako; Foru Aldundiak errepideko lanen sustatzaila delako, Eusko Jaur-laritzak ingurumen aldetik inolako azterketarik ez duelako; eta Espainiako Ministerioak uren eta kostatako baimenik ez duelako».

Asfalto labe hau Alkaiagan ezarri zuen Orsak; Lesakako eremuan. Lesakako Udalak baimena behar bezala eman ez zuela eta, makina bat alegazio aurkez-

tu zituzten Alkaiaga eta Berako bizilagunek, Berako Udalak zein Aralarrek. Labea Alkaiagatik kendu zuten, baimena tramitatzeko zailtasunak ikusita, eta bi egunen buruan instalatu zuten Irunen. «Hilabete eta erdi baino gehiago da labe horren gaineko informazioa eskatu duela Aralarrek Irungo Udalean, eta ez dugu inolako informazio ofizialik jaso».

Asfalto labearen jarduera eten eta beharrezko baimenak tramitatzeko eskatu die Aralarrek instituzio guztiei.

**ERREKALDE**  
PLAZA KONKURTATUAK  
PINTURAK  
KONKURTATUAK  
TFONA: 948 630 254 BERA

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak  
barrukoak eta fatxadak  
tel. 666 235 466

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 BERA

## BERA

# Erraldioen konpartsa sortzeko doako ikastaroa antolatu du Kultur Batzordeak

Izen-ematea ekainaren 30a baino lehen egin beharko da

## ttipi-ttapa

Sanesteban bestetan ateratzen den erraldioen konpartsa indartzeko, eta talde iraunkorra sortzeko deialdia egin du Kultur Batzordeak. 18 urtetik goitiko herritarrekin erraldoiak dantzatzeko taldea osatzea da helburua eta horren harira, ikastaroa ere antolatu du, erraldoiak nola dantzatu erakusteko. Ikastaroa dohainik izanen da eta hiru larunbat goizetan izanen da: uztailaren 18an eta 25ean eta abuztuaren 1ean.

Ikastaroan izena eman nahi duenak ekainaren 30a baino lehen egin beharko du, 012 telefonora deituta.

Bertzalde, aipatu, erraldoi berriak egiteko lanak ere hasiak direla, eta 2010eko bestetarako prest egonen direla.

## Eltzaurdi auzoko uren kloratzea

Eltzaurdiko auzotarrak errentzako ura kloratzeko egitasmoa uztaileko martxan izanen da. Hala adierazi dio Josu Iratzoki alkateak Ttipi-Ttapari. Koloratzailea Usategietan paratuko da baina hasieran ezarriko dena probisonala izanen da. Behin betikoa Ibadineria ura eramateko proiektuarekin batera zehaztuko da, Iratzokiren hitzetan, «se-

guraski hurrengo urtean».

Behin behineko proiektu honen gastua 9.000 euro ingurukoa izanen da. Gastua zehatz zenbatekoa izanen den Ibadineria ura eramateko proiektuarekin jakinen da.

## Mugabeclown ikastaroa asteburuan

16 orduko ikastaroa eginen dute asteburu honetan Alkebera landetxean, norberaren clowna lehen aldiz topatzeko izenburupean, bereziki inoiz esperientziarik izan ez duten pertsonei bederatua. Ikastaroaren prezioa 250 eurokoa izanen da (egoitza mantenu osoan eta ikastaroa barne). Informazio gehiagorako eta izena emateko: (0034) 948 631162 telefonora deituta edo [www.uhartean.com](http://www.uhartean.com) webgunean.

## Organo Zikloa abuztuan

Aurten ere organo doinuekin gozatzeko aukera izanen da abuztuan, Sanesteban Elizan, Eusko Ikaskuntzak eta Udalak duten hitzarmenaren bitartez. Abuztuaren 14an Carlos A. Gerra organista etorriko da; abuztuaren 21ean Jose Luis Etxetxia eta azkenik, abuztuaren 28an Camille Saint-Saëns.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Gidatzeko baimena euskaraz

Gidatzeko baimena ateratzeko Donostian azterketa teorikoa euskaraz egin duten lehenbiziko hiru ikasleak Berakoak dira. Hain zuzen, Semper autoeskolaren eskutik, Ruben Zapiain eta Gorka Tolosak apirilaren 16an gainditu zuten euskarazko azterketa, lehenbizikoan, eta bertze horrenbertze egin zuten apirilaren 30ean Unai Igoak. Semper autoeskolako Carlos Semperrek aipatu digunez, «*Debagoienako Mankomunitateak atera zuen materiala aspaldian euskaraz eta gure inguruan orain ikasle gehienak euskaraz ikasita-koak direla kontuan hartuz, hemen erabiltzea pentsatu genuen*». Hiru ikasleak ere gustora daude, batez ere teorikoa lehenbizikoan atera baitute.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Ekoeragileen lehiaketako lehen saria Toki Onara

Ingurumenaren nazioarteko egunaren harira —ekainak 5—, Cederna Galur Elkarteak ekoeragileen lehiaketa zabaltu zuen Nafarroako Mendialdeko institutuei zuzenduta. Internet erabiliz ikasleek ingurumenaren babesari buruz solastu, eztabaidatu eta lan egin behar izan zuten. Lau ikastetxek hartu zuten parte eta irabazleak Toki Onako DBHko 2. D mailakoak izan ziren. Hilaren 11n hartu zuten saria.

### ERRATS oihalak

Agerra - Sara, 6 - BERA  
Tel. 948 630 620

Erretiroa hartzeagatik  
**ERABATEKO LIKIDAZIOA**

Oihal mota guztiak · Lentzeria · Gizonezko azpiko arropa

**%50 eta %70eko deskontuak**

Uztailaren 31 arte irekia



## LESAKA

### Matrikulazio epea ekainaren 29tik uztailaren 14ra irekiko du Udal Musika Eskolak

Ikasle berrientzako bigarren epea irailaren 1etik 10era izanen da

**Aitor AROTZENA**

Lesakako Udal Musika Eskolak 2009-10 ikasturtean ikasle berriak matrikulatzeko epeak ekainaren 29tik uztailaren 14ra eta irailaren 1etik 10era irekiko ditu. Horretarako 012 telefonora deitu beharko da.

Bertze urtetan bezala, Musika Eskolak 2008-09 ikasturtean ikasle izan direnak automatikoki matrikulatuko ditu heldu den ikasturterako, plan pedagogikoaren eta ikasgai ezberdinetan lortutako kalifikazioaren arabera. Horregatik ez dute 012ra deitu beharrik izanen. Hori bai, baja eman edo aldaketaren bat egin nahi duten ikasleek ere ekainaren 24a baino lehen deitu beharko dute. Modu berean, Musika eta Mugimendua II ikasi behar duten ikasleek ere deitu beharko dute 012ra, musika-tresna aukeratu behar baitute.

Musika-tresna aukera zabala eskainiko du aurten ere Musika Eskolak: akordeoia, saxofoia, klarineta, txirula,

pianoa, gitarra, gitara elektrikoa, tronpeta, tronboia, tronpa, txistua, trikitixa eta perkusioa. Gainera, 13 urtez goitiko ikasleek tresna herrikoiak (txirula, tuntu, alboka...), bonbardinoa eta teklatu elektrikoa hartzen ahal dute.

13 urtez goitiko ikasleek aukerako ikasgaiak ere izanen dituzte, hala nola, armonia, kultura musikala, talde instrumentala, Ganbara-Musika, talde korala edo pop-rock taldea, azken hau izen-emandako ikasle kopuruaren arabera.

Aipatzekoa da heziketa berezia duten haurrentzat egokitutako klaseak eskaintzen direla Musika Eskolan eta aitzineko urteetan bezala, jende helduari arreta berezia jarritz, hainbat eskaintza berezi plazaratu dituztela.

Edozein zalantza argitzeko 012ra edo Lesakako Herriko Etxeko 948 637005 telefonora edo 618 264659 telefonotara deitu behar da eta [www.lesaka.net](http://www.lesaka.net) en ere egiten ahal da kontsulta.



ARGAZKIAK: AITOR A.

### Bizikletaz ibiltzeko eta bide heziketa tailerrak

Bizikletaz ibiltzeko eta bide heziketaren inguruko tailerrak egin dira, Added-Value-Intelligent Energy Europe proiektuaren barnean. Ekainaren 10ean, Oraintxe enpresako kide batek bizikletaz ibiltzeko aholkuak eta arauak eman ondotik herrian barna ibilaldia egin zuten. Irain eskolan ere, ikasturtean ikasitakoari adibide praktikoa jarri zioten ekainaren 12an, Mapfreren eta Semper autoeskolaren laguntzaz jarritako zirkuituekin. Eskolako ikasleak, mailaz maila banatuta, Mapfreko adituen aholkuak aditu zituzten eta zirkuitoan barna, trafiko arauak eta semaforoak agindutakoa segituz ibilbidea osatu zuten. Herriko albintean azalpenak ere erne segitu zituzten.

### Geldialdi teknikoa igerilekuan

Udal igerilekuak derri gorrezko geldialdi teknikoa eginen du ekainaren 29tik uztailaren 12ra, garbiketarako.

### Ikasturte bukaera

Tanturumairu ikastolak ekainaren 20an ospatu zuten ikasturte bukaera eta Irain eskolak ekainaren 23an.

### sanferminak.org

[www.sanferminak.org](http://www.sanferminak.org) web-orrian, sanferminei buruzko informazioa topa daiteke: egitaraua, autobus ordutegiak, kanpalekua...



## ETXALAR

# Dantza, kenpo-kai, magia eta batukada igande honetan

Dantzaren eta Haurraren Lehen Eguna antolatu dute

## Joseba eta Nerea

Igande honetan, ekainak 28, eginen da lehenbizikoz Etxalarren Dantzaren eta Haurraren Eguna. Ekitaldi andana izanen da goizean golzetik herrikotikienentzat. Urtean zehar haurrak hainbat ikastarotan parte hartu dute, eta egindako lana erakutsiko dute egun horretan; dantza, kenpo-kai, batukada.... Rebeca Aranzadi Dantza Jazz irakaslea da eragile nagusia.

11:00etan hasiko da eguna haurrentzako puzgarriekin. 12:00etan Modestoren ikasleek kenpo-kai erakustaldia eginen dute eta Rebecaren dantza jazz ikasleek dantza batzuk eskainiko dituzte.

Arratsaldean puzgarriak, karaokea, aurpegi margotzea eta eskulana egiteko aukera izanen da. 17:00etan berendua emanen zaie haurrei. 17:30ean hegazti ha-

rparien interakzioa izanen da Belatz Handi falkoneria elkartearen eskutik. 18:30ean batukada erakustaldia eta gerria mugitzeko aukera eta, akabatzeke, 19:00etan, magia ikuskizuna Markos Ortegarekin. Eguna polita bai haurrentzat, bai gurasoentzat.

## España Directo Etxalarren

Ekainaren 15ean TVEko España directo saioko kamarak Etxalariko Bentatan egon ziren. Sukaldean egiten dituzten errezeten tartea Bentako sukaldetik egin zuten, Asier Salaberria sukaldariaren eskutik. Roberto kazetaria egon zen aurkezpen lanak egiten eta, sukaldariarekin batera, Jabier Ortego kudeatzailea ere agertu zen. Herriaren irudi batzuk agertu zituzten «un pueblo precioso» erranez. Berdura freskoak perretxiko salteatuekin



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

## Arrakasta handia XVII. Gasna Feria Egunean

Arrakasta haundiz ospatu zen XVII. Gasna eta Artisan Feria Eguna. Jende parrasta ibili zen eta eguraldia lagun, ekitaldi guztiak pentsatu bezala egin zituzten. Gasna lehiaketara 15 gasna aurkeztu ziren, horietatik bortz Etxalarloak. Lehenbiziko saria Berara joan zen, Garmendikobordako Sokorro Almandozentzat; bigarren saria Urdazubiko Etxelekua gasnategiak eskuratu zuen eta hirugarrena Orabideako Salaberriko Pello Pellegik jaso zuen. Etxalarlo gasna onenak Basatekobordako Isidro Ariztegiarena eta Intzekobordako Josetxo Ariztegiarena izan ziren.



ARGAZKIA: ONINTZE ZINKUNEGI

## Giro ederra Haurren Egunean

Joan den ekainaren 14an egin zen aurtengo Haurren Eguna. Eguraldi ederra lagun, giro ederra izan zen. Landagain Eskolako neska-mutikoak «hagitz ongi eta aski kontent» pasatu zuten eguna, erran digutenez.

eta vieira egosiarekin. Horixe izan zen egin zuten errezeta.

## Julen eta Lorea sorosle

Bi herritarrek hartu du-

te udan igerilekuak eramateko ardura, Julen Aranburuk eta Lorea Arangoak. Joan den urteko arazoak ikusita, sorosle ikastaroa egin dute bi herritarrek eta

eurek arduratuko dira igerilekuko eta ostatuko lanetaz. Ekainaren 20an ireki ziren igerilekuak eta abuztuaren 31ra arte egonen dira zabalik.

**BERA** Zere inguru klase guzietako inaktuz (xomorro, zinorro, arnionema, kukux...) eta arretoi xogotuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termitu eta Pipien tratamenduak

**GGI EKO** Industria Gertitasun Produktuak

Tel: 948 629 587 • Zelen, 42 A • BERA

**ZUBIONDO** Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika

BERA NAFARROA

**iparra**

Kalitatezko Alabak

PSICOTERAPISTA

Bikarretako metodoak

Kinest. Inerziaz

Elkarrekin arazo psikologikoak

Osasunaz

00 33 559 48 19 32

**m**

**bentamiguel**

denda, jatetxea eta ostatua

Ongi zaindutako sukaldaritza

Menuak aukeran

Tabakoa

Likorak

Janari denda

Urteategia

Ibardingo Lepoa • 948 631 209



**EUSKARA**

## UEMA n sartu dira Bera eta Etxalar

Dagoeneko 61 udalerrik osatzen dute UEMA

**ttipi-ttapa**

Ekainaren 13az geroztik, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide dira Etxalar eta Bera, Nafarroako Arantzeta Larraun, Gipuzkoako Elgeta eta Amezketa eta Bizkaiko Busturiarekin batera. Egun horretan ospatu zen UEMA Eguna Beran, *Euskarak elkartzen gaituelako* lelopean eta orduan hartu zuten euskaraz funtzionatzeko konpromisoa.

Nafarroan 12 dira erakunde honetako kide diren udalak, 61 Euskal Herri osoan, horietatik zazpi eskualdekoak: Arantza, Goizueta, Zubietza, Leitza, Areso eta aurten sartu diren Bera eta Etxalar. 1991n osatu zen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

eta Berakoa hamazazpigarren UEMA Eguna izan zen.

Goizean, UEMA eta Kontseiluak hitzarmena sinatu zuten Kultur Etxearen, udalen hizkuntza politika elkarlanean neurtzeko eta hobetzeko neurriak hartzeko.

Patxiku Irisarri Etxalarko alkateak eta Josu Irtzoki Berako alkateak hartu zuten hitza Altzateko plazan egindako ekitaldian. Irisarrik, Etxalarkoa izanik, UEMA n dau den herri nafarrak 12 usorekin konparatu zituen, «*libre hegan egin duten herriak, Nafarroako Gobernua inposatutako hirueremuengainetik, hizkuntzak eta naturak ez baitu mugarik*».

Josu Irtzoki Berako alkateak adierazi zuenez, Berak UEMA ko ki-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

**Altzateko plazan egindako ekitaldia.**

de izateko eskatzen den baldintza bizilagunen %70a euskal hiztuna izatea, betetzen du, «*baina zaila da Herriko Etxeko tramitazioetan eta bertzelako eremuetan euskaraz erabiltzea. UEMA n sartuta, hori lortzeko aitzinera bidea eginen dugulakoan gaude*».

Jon Bollar Aulestiko alkatea eta UEMA ko presidentea aipatu zuenez, «*euskaraz bizitzeko erabakia hartu zuen udalerririk kopurua hirukoiztu egin da, baina oraindik ere euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko asko dago egiteko. Horren erakusgarri dira Behatokiak uda-*

*letan jarritako postontzietan, hizkuntz eskubideak urratu direlako jasotako 200 kexak, Nafarroan 20 baino gehiago. Horiek gertatzen diren urraketen zatitxo bat besterik ez dira*». 2001-etik Nafarroan UEMA Egunik ez dela egin ere aipatu zuen presidentek, eta Nafarroa osoan euskara ofiziala izatea eskatu zuen.

Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak gogorarazi zuenez, Kontseiluak duela 12 urte sortu zenetik Bai Euskarari leloa erabili badu ere, hemendik aurrera Euskaraz Bai erabiliko du «*bai esatea bai-*

*no zerbait gehiago behar duelako euskarak, ikastea eta erabiltzea bategi ere*».

Kontseiluak hainbat arlotan lan egiten duen arren, Mendigurenen ustez, «*Udalak egunero bizitzarako tresna oso garrantzitsuak dira, hurbilekoak eta horregatik, Udalak pixkanaka euskalduntzen baditugu, etorkizuna hortik dator*».

Gainerakoan, giro onean joan zen eguna, herri kirolak, haurren txokoa eta bazkaria, dantzaldia... Gisa guzietako ekitaldiak izan ziren. Bide batez, UEMA k aurten 18 urte bete dituela ere ospatu zuten.

**Felix Unsioren**  
Toki Onako ikasle ohi,  
lankide eta lankide ohiendako  
**gonbidapena**

Felix Unsioren irakaslearen jubilazioa dela eta,  
Toki Onako bere ikasle ohiak, lankide eta lankide ohiak  
**Bereau Ostatuan** zerbait hartzera  
gonbidatuak daude

*Ekainaren 25etik Sanfermin bezpera arte*

## ARANTZA

# Goiko Karrika eta Karrika Nagusia moldatzeko lanak besta ondotik hasiko dira

Ekainaren erdialdera hastekoak baziren ere, azkenean gibeleratu behar izan dira

## Nerea ALTZURI

Aitzineko alean aipatu genizuen moduan, Sasoi Eskabazioak enpresak eginen ditu Goiko Karrika eta Karrika Nagusia konpontzeko lanak. Hasiera batean, joan den astean lanekin hastekoak baziren ere, Sasoi enpresak Udalarari obrak besta egunetarako akautzea zaila ikusten duela adierazi dio. Beraz, karriketako moldatze lanak Amabirjin besten ondotik hastea erabaki dute, Udalak bando baten bitartez argi eta garbi zabaldu duen bezala.

## Udalekuetan 15 gaztetxo

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Dindaia fundazioak antolatutako udaleku irekietan harrera ona izan dute herrian. Azken urteetan bezala, udako oporraldian goizero zer egin izanen dute gaztetxoek. Aurten 15 neska-mutikok eman dute izena eta taldean gehienbat hiru eta bederatzi urtekoak dira. Txangoak, eskulanak, tailerrak, jolasak... denetarik egin eta ikasiko dute uztailearen 6tik 31ra bitartean. Begiraleen lagun-

tzaz, uztaileko astetarako goizak beteak izanen dituzte.

Bertzalde, bestetako dantzak entsaiatzen ere buru-belarri ari dira. Aspertzeko asti gutti, beraz!

## Frontenis Txapelketa

Bertze urte batez, Fron-

tenis Txapelketa antolatuko du Ekaitza Elkarteak. Bi kategoritan egingen da, emakumezkoena alde batetik, eta gizonezkoena bertzetik. Uztailean hasiko da txapelketa eta partidak asteburuetan jokatuko dira. Finalak, berriz, uztailearen 25ean egingen dira. Antolatzaileek ira-

garri dutenez, sari ederak izanen dira.

Izena eman nahi duenak ortzegun hau, ekainak 25, izanen du horretarako azken eguna. 699 012012ra edo 650 324046ra deitu behar du. Bikoteko 10 euro ordaindu behar dira.

Joan den urtean arrakasta handia izan zuen

txapelketak, 20 bikote aurkeztu baitziren. Ea aurtengoan ere animatzen den jendea!

## Leitzara mendi irteera

Herrian mendirako dagoen afizioa bistakoa da, eta horregatik antolatuko du bertze ateraldi bat Ekaitza Elkarteak. Aldi honetan lehenbiziko aldiz, uztailearen 4an, Leitzara mendiz joanen dira.

Joan nahi duenak aitzinetik eman beharko du izena: ekainaren 25a baino lehen 699 012012 edo 650 324046 telefonoetara deituta. Leitzan bazkaldu ondotik, buelta autobusez edo kotxez egingen da.

## Barnetegiak Aterpean

Uztailean eta abuztuan AEK-ko lau barnetegi izanen dira. Lau hamabortzalditan euskara ikastera eta hobetzera etorriko diren dozenaka lagun bilduko dira Aterpean. Bidenabar, herrian ere, aspaldiko urteetan bezala, udan bixitasuna agerikoa izanen da, eta modu batean edo bertzean, herrian dauden zerbitzuek ere nabaritu dute.



ARGAZKIA: SONIA TABERNA

## 100 urte bete ditu Frantxiska Altzurik

Frantxiska Altzuri Mitxelenak ekainaren 4an ehun urte bete zituen. 1909an sortu zen Senberro baserrian; zortzi senideetatik zaharrena da. Gero, Osildekobordara, ondoko baserrira, ezkondu zen. Bi alaba, zortzi biloba eta zortzi birbiloba ditu. Gaur egun, bere alaba, suia eta hiru bilobekin bizi da Osildekobordan bertan. Ekainaren 4an, eguerdian meza tiki bat egin zuten etxean eta ondotik familian bazkaria egin zuten. Ederki ospatu zuten. Argazkia ospakizun eguneko da, Frantxiska bere senitartekoekin ageri da.


**ttipi txartelarekin beti irabazten**  
 deitu 948 635 458 eskatu zurea

**40€rekin**  
 Harpidetza, 40 dendetan deskontuak, hamabostero zozketak eta gainera, errenta aitormenean %25 itzultzen dizute

arropak - mairidireak  
 mantak - nordikoak  
 toallak - kortinak  
 alfonbrak  
**Goya**  
 Alzusa, 3 - Tel: 948 630 083



## BORTZIRIAK

# 112 Bai Euskarari Ziurtagiri banatu dira Bortzirietan

Aurten lau entitate berrik bat egin dute egitasmoarekin

### ttipi-ttapa

Bai Euskarari Ziurtagiria jaso zuten ekainaren 6an Bortzirietako hainbat eta hainbat entitatek Berako Kultur Etxean egindako ekitaldian. Bosgarren banaketa ekitaldia izan zen eta guztira 112 banatu ziren. Zerbitzua eta lana euskaraz eskaintzen duten 18k jaso zuten Ziurtagiria, zerbitzua euskaraz eskaintzen duten ber- tze 49k eta euskara bidean dauden 45ek.

Bortzirietan urte batzuk daramatzate euskararen erabilera bultzatzen eta horren harira, zera adierazi zuen Rober Gutierrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak: «112 Ziurta-

*giri banatu ditugu eta kopurua garrantzitsua da, baina are garrantzitsua goa da horren atzetik dagoen lana: urtez urte ematen dituzuen urratsak, lortzen dituzuen helburuak eta zuen konpromisoaren bitartez egunerokoan eragiten duzuen».* Eta Bai Euskarari Ziurtagiria lortu duten entitateak egiten ari diren aldaketak zerrendatu zituen segidan: euskara ikasi, errotuluak euskaratu, webgunee- tan euskara erabili, be- zeroak euskaraz hartu, komunikazio publiko- tan euskaraz hitz egin, euskaraz dauden pro- grama informatikoak era- bili, hornitzaileei euska- raz lan egiteko eskatu,



ARGAZKIA: ZIURTAGIRIAREN ELKARTEA

**Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia ekainaren 6an egin zen Berako Kultur Etxean.**

produktuen etiketak euskaratu... Bukatzeko, Bortzirietako Euskara Mankomunitateari, bertako eragile sozialei eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren aldeko apustua egin du- ten enpresa, komertzio eta gisa guztietako enti- tateei eskerrak eman ziz- kien.

Euskara Mankomu- nitateko lehendakari- oren Ramontxo Elgo- rriagak ere ekitaldian par- te hartu zuen, eta berak ere euskararen norma- lizazioaren bidean urra- tsak ematen segitzeko beharra azpimarratu zuen. Bai Euskarari Ziur-

tagiria lortu duten enti- tateak ere zoriondu zi- tuen.

### HERRIZ HERRI ETA SEKTOREKA

Herriz herri, **Beran** ba- natu ziren Ziurtagiri gehienak, 48 guztira; **Le- sakako** 33 entitatek ja- so zuten, **Arantzan** 12k eta **Etxalarren** eta **Igan- tzin** bederatzina Ziurta- giri banatu ziren. Aitzi- neko urtearekin konpa- ratuz, lau entitate berrik erabaki dute ekimena- rekin bat egitea. Aipatu, Ziurtagiria jaso zuten 112 entitatetik bat Nafarroa- ko Herri Kirol Federa-

zioari dagokiola, eta ho- nek **Sunbillan** du egoi- tza.

Sektoreka, berriz, ko- mertzio eta ostalaritza- ren eremuan banatu zi- ren Ziurtagiri gehienak, 112tik 60. Lan munduko 13 banatu ziren; lau ki- rolairekin lotura dutenak; zortzi mundu asoziatibo- koak; bi nekazaritza- ren sektorekoak; bortz zerbitzu orokorrekoak; sei lehen mailako hez- kuntzakoak; zortzi kul- turaren alorrekoak; bi mundu asistentzialekoak eta ba- karra finantza eta ase- guruen mundukoa.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

**Bera** 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

**Doneztebe** 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

**Elizondo** 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

**Leitza** 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

**Lesaka** 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

## LANA

# ArcelorMittaleko langileak urte bukaera arte erregulazioan egonen dira

Krisia dela eta, Bidasoa Plana gibeleratu egingen da

## ttipi-ttapa

Ekainaren 8az gerostik erregulazioan daude ArcelorMittaleko langileak, tartean Legasa eta Lesakakoak. Eta hala egonen dira, guttienez urtea bukatu arte, abenduaren 31 bitarte. Lan Zuzendaritza Nagusiak ekainaren 3an eman zion baietza enpresak aurkeztutako erregulazio espedienteari. Azaroan berriaz bilduko dira EREaz mintzatzeko.

Erabakia Madrilen hartu izana salatu dute ELA eta LAB sindikatuek. «Espedientea Madriletik inposatutako erabakia da», dio Joxe Mari Lasaga LABeko ordezkariak. Bideberetik, ELAko Aurelio Gutierrezek erregulazioaren «kontra» daudela nabarmendu dio Ttipi-Ttapari, «Madrilen hartu delako erabakia, ez enpresa bakoitzean, eta ez duela lako planta guztien segidari ziurtatzen».

Edonola ere, onartu dago eta bitarte horretan, langileak, batz bezte, lanorduen %50ean egonen dira erregulazioan. Ez die langile guzietan berdineraginen. Instalazio bakoitzaren produktioaren arabera diferentia izanen da. La-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Instalazio bakoitzaren produktioaren arabera, erregulazioan egon behar den denbora, diferentia izanen da.

«Bidasoa Plana martxan paratzen ez bada, sarraski gogorra gertatuko da hemen»

LAB sindikatua

gasan, adibidez, pinturaren sekzioan lan «aunitzekin daude» eta ia ez dute erregulazioan egon beharko. Horretan bat datoz hiru sindikatu nagusiak: LAB, ELA eta UGT. Aldiz, Lesakan, zizailekin edo bobinekin ari direnak denbora luzeagoz egon beharko dute erregulazioan. Lasagak azaldu digunez,

«Erregulazio hau akituta, luzatzeko arriskua dago, hasieratik enpresak hori nahi baitzuen»

ELA sindikatua

«langile bakoitzak egutegi bat jasoko du hila-betero eta horrekin etxean noiz edo erregulazioan noiz egon beharko duen jakinen du. Baina lantegia ez da geldituko, martxan segituko du».

EREa indarrean dagoen arren, UGTko Patxi Altxu baikor mintzatu da enpresarekin lortu diren akordioez. Baldin-

«Erregulazioan daudenez kasik lanean baleude bezala kobratuko dute»

UGT sindikatua

tzak «hagitz onak» direla azpimarratu du: «langileak erregulazioan daudenean, %90 parotik kobratuko dute eta gainerakoa enpresak bidertatuko du. Beraz, erregulazioan daudenez kasik lanean baleude bezala kobratuko dute».

BIDASOA PLANA  
Bidasoa Plana da sin-

dikatuengan itxaropena pizten duena. 35 milioi euroko inbertsioa egingez, 2011rako Legasako fabrika itxi eta Lesakan produktioa indartuko duela aurreikusten duen plana, alegia. Baina krisia dela eta, gibeleratu egin da eta horrek kezka eragin du LABen: «inbertsioa egingen dela erraten digute, baina baldin eta ez bada martxan paratzen, sarraski gogorra gertatuko da eta langile aunitz geldituko dira soberan». Horrekin batera, zera aipatu digu: «Lesakako bonbinaren produktioa egunen batean, Asturiasen egiten denaren arabera izanen da eta Asturiasen makina guztiak geldirik daudela ikusita...».

ELA, bere aldetik, abenduan gerta daitekeenaren beldur da: «erregulazio hau akituta, gehiago luzatzeko arriskua dago, hori baitzen hasieratik enpresak nahi zuena».

Bertzalde, momentu honetan «pixka bat lan gehiago» dagoela aipatu digu Altzuk, eta horren harira, «EREa bere osotasunean ez betetzea positiboa dela» gaineratu du Gutierrezek.

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Altxate, 17 - BERA

**BEINTZAKO OSTATUA**  
T. 948 45 00 14  
ORBELA

**Gure Haragia**  
Nuestra Carne



## HEDABIDEAK

# Ttipi-Ttapa Telebistaren aldeko 1.500 sinaduratik goiti bildu dira

Ortzegun honetan Etxalarren aurkeztuko dituzte

### ttipi-ttapa

**Ttipi-Ttapa Telebis-**taren alde Bortzirietako Euskara Mankomunitateak abiatutako sinadura bilketa bere amaierara ailegatu da. Martxoaren erdi aldera hasi kanpaina bortz herrietan eta gozotik 1.500etik gora sinadura bildu dira. Le-ro hauek idazterakoan 1.571 ziren bildutako sinadurak, baina oraindik ez ziren denak zenbatuak.

### SINADUREN AURKEZPENA

**Ttipi-Ttapa Telebis-**ta berriz ere Bortzirietako etxeetan egoteko eskatuz, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak hasi zuen sentsibilizazio, atxikimendu eta salaketa ekimenen barne egin da sinadura bilketa eta hiru hilabete beranduago, kanpainari bukaera emateko, sinadurak aurkezteko bi ekitaldi egingen dira: bat Etxalarren, ortzegun honetan, 19:00etan Kultur Etxean. Bertzea, berriz, ortziralean, ekainak 26, Iruñean, 11:00etan. Bortzirietako Euskara Mankomunitatetik iragarri dutenez, sinadurak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan aurkeztuko dira.



"Merezi duzu" Nomina Zerbitzua

## NOMINA HONEKIN DENAK DIRA ABANTAILAK



**EUREN NOMINA RURAL KUTXAN KOBRAITZEN DUTEN GUZTIEK BADIUTZITE JADA BALDINTZA FINANTZARIO BAKAR HAUEK.**

- Nomina Kontua komisiorik gabe.
- Nomina-surerakina dohainik.
- Nomina mallea korriturik gabe.
- Zordunketa eta kreditu bartelak jaulkipen kuotarik gabe eta urteko kuota %100 eta %50 arteko beherapenak humenez hurren erosketetan egindako erabilpen mailaren arabera.
- %10eko deskontua Etxebizitza, Bizitza eta Istripu Aseguruetan.
- Zordunketa bidezko diru-ateratzeak dohainik eta mugagabeak Nafarroatik kanpo edozein erakunderen Servired kutxazainetan.
- Doako kudeaketa, emsizuak zure kontuan zorduntzeko.

**HELBIDERATU ZURE NOMINA RURAL KUTXAN ETA ONURATU ABANTAILA GUZTI HAUETAZ.**

## DEN-DENA MEREZI DUZU

OPARIA OPAR  
IPARIA OPARIA  
UA OPARIA OPAR  
IPARIA OPARIA

Galdetu gure bulegoetan zein den 2008ko urtailaren 31 baino lehen nomina gurean helbideratzen dutenentzat prest dugun ongi-etorri oparia.

*nire aukera*



**NAFARROAKO RURAL KUTXA**

Sustapeneren sinatzaile Notariaren aurrean eta Rural Kutxaren bulegoetan.

WWW.NAFARROA.RURALKUTXA.COM  
TEL: 948 355 000

Merezi duzulako.

## ttipi ttapa

☎ (0034) 948 635458

## SUNBILLA

# Herritik ateratzeko dauden bi bidegurutzak aldatzeko proiektua ikusgai Herriko Etxean

Alegazioak aurkezteko epea zabalik dago

## Jaione OTXANDORENA

Herritik atera eta herri-ara sartzeko dauden bi bidegurutzak moldatzeko proiektua Sertecna enpresari aginduz jondan den urtean Nafarroako Gobernuko Herri Lanetako zuzendari nagusiak. Eta orain, proiektua behin behinekoz onetsi eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jakinarazi du Gobernuak. Jendaurrean hila-bete batez egonen da udaletxean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

## HEGOALDEKO BIDEGURUTZEA

Gobernutik jakinarazi dutenez, hegoaldeko bidegurutzea, Doneztebe aldekoa, garrantzitsuena da. Gaur egun, Iruñetik Sunbillara doazen ibilgailuek eta herri-gunetik Behobiara doazenean errepidea gurutzatu behar dute, bi errailak zeharkatuz. Trafiko

haundia izaten da toki horretan eta zati arriskutsua da, hildakoak ere izan baitira tarte horretan. Hala, errepideko bi lerroak ez gurutzatzeko, Iruñetik herrira sartzeko erdiko lerro bateraiki nahi da. Hartara, biraketa egiten duten ibilgailuek Sunbillan sartzeko lerro bakarra gurutzatu beharko lukete. Behobiara joateko, berriz, azelerazio bidea egitea proposatu da.

## IPARRALDEKOA

Iparraldeko bidegurutzearen kasuan, Irun aldekoan, helburua ezkerreko biraketak kentzea da, errepidea ez gurutzatu behar izateko. Horretarako, ibilgailuak soilik eskuinera biratzera behartuko dira. Beraz, herritik Behobiara ezin izanen da atera bidegurutze horretatik, ezta Iruñea aldetik Sunbillara sartu ere. Bertze bidegurutzeara erabili beharko da.



ARGAZKIAK: J. OTXANDORENA

## Musika Eskolako kontzertua

Ekainaren 10ean Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten plazan, bigarren urtez jarraian. Iaz eguraldi txarraren ondorioz, Ulibeltzak Elkartean egin zen saioa, baina aurten ez zen arazorik izan plazan egiteko. Jende dezente hurbildu zen kontzertura eta ondotik, Udalak eskainitako berendua izan zen guztientzat. Hauek hartu zuten parte kontzertuan: Zaira Gaztelumendi (Sunbilla), Jon, Joana, Javier, Ibai Apeztegia (Sunbilla), Otadi, Lorena, Xabier, Ainara Antuña (Sunbilla), Olaia, Naroa, Silvia, Naxara, Elvira Fuentes (Sunbilla), Garbiñe, Iñaki, Josu eta Iñigok.



ARGAZKIAK: J. OTXANDORENA

## Bestaberri Eguneko prozesioa

Urteroko ohiturari jarraituz, Bestaberri egunean prozesioa egin zen. Aurten Lehenengo Jaunartzea egin zuten gaztetxoek eta Udaleko ordezkariak parte hartu zuten meza ondotik egindako prozesioan, herriko txistulari eta Abesbatzaren laguntzarekin. Zinegotzia den Xanti Arretxeak ere banderaren dantza egin zuen prozesioa akitutakoan.



**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



**Zalain**  
jatetxea - hostala

14 logela bainu  
eta TBrekin

Zalain auzoa s/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA



**Lizardi**  
Telekomunikazioak



TDT Instalazioak  
TB Instalazioak  
(satelite, lurrekoak)  
Instalazio indibidualak eta kolektiboz  
Portero automatikoak  
Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720  
joxanlizardi@hotmail.com



## DONEZTEBE

## FLASH

# Sanpedro Eguneko emanaldiarekin akituko du denboraldia Mendi koruak

Meza Nagusian *Tu es Petrus* eta *Agur Doneztebe* kantatuko ditu

### ttipi-ttapa

Udaberria emanaldi emanaldi pasatu ondok, herritarren aitzinean eskainiko duen saioarekin akituko du denboraldia Mendi Abesbatzak. Sanpedro egunean, Meza Nagusia musikaz beteiko du, jendeak hain gustuko dituen *Tu es Petrus* eta *Agur Doneztebe* bezalako doinuak eskainiz.

Joan den larunbatean, ekainak 20, Nafarroako Abesbatzen Elkarteak deituta, Santo Domingo de la Calzadan izan ziren kantatzen, eta ekainaren 6an, berriz, herrian eskaini zuten emanaldia, Gipuzkoako Hirusta Abesbatzarekin batera. Biharamunean, hilak 7, Goizuetara joan ziren, Umore Ona peñaren 50. urteurrena ospatzeko kontzertuan kantatzera.

### Niko Mindegia mundialean

Niko Mindegia eskubaloia jokalaria uda mugitua izanen du. Izan ere,

abuztuan eskubaloiko junior mailako mundiala jokatuko du Egipton Espainiako selekzioarekin. Prestaketetan burubelarri, Danimarkan lagu-

narteko bi partida jokatuko zen joan den asteburuan.

Uztailaren 13tik aitzinera, berriz, Gijonen konzentratuko da 14 egu-

nez, eta 30etik aitzinera Pinton, abuztuaren 3an Egiptora joan eta txapelketari ekin arte. Txapelketa abuztuaren 4an hasi eta 19an akituko da.



ARGAZKIA: ERREKAREN BLOGA

### Selekzioen arteko eskubaloia txapelketan Nafarroa garaile

Ekainaren 6an Hego Euskal Herriko selekzioen arteko eskubaloia txapelketa jokatu zen kiroldegian. Jubenil mailako mutilen txapelketaren XXXI. edizioa izan zen herrian jokatu zena. Lehenbiziko partidari, Bizkaia eta Gipuzkoako selekzioen arteko partida jokatu zen eta honetan gipuzkoarrak nagusitu ziren; Araba eta Nafarroaren arteko lehian, berriz, azken hauek nagusitu ziren. Finala Gipuzkoa eta Nafarroaren artean jokatu zen eta honetan nafarrak atera ziren txapelak. Hirugarren bizkaitarrak gelditu ziren eta laugarren arabarrak. Aipatu, Nafarroako selekzioarekin Kepa Miguel herritarra aritu zela.

### Albaceteko Sari Nagusian txukun Mariezkurrena

Javier Mariezkurrena kamioi-gidariak eta Ederki tailerreko eskuderiak Albaceteko kamioendako VI. Sari Nagusian parte hartu zuten ekainaren 6 eta 7an. Lehenbiziko karreraren, Mariezkurrenaren MANa 27 kamioien artean 11. postuan zela, antipar barra hautsi zitzaion eta transmisio aberria eragin zuen, baita gasolio depositoa zulatu ere. Ondorioz, ezin izan zuten lehen proba akitu. Dena den, orubete beranduago mekanikoek lasterketarako prest utzi zioten kamioia. Parrilako azken postutik atera bazen ere, lehenbiziko bi itzulitan kamioi aunitz aitzineratu eta 13. postuan akitu zuen, hirugarren Espainiako txapelketarako. Igandean, sailkapeneko proban parrilako 11. postua lortu zuen lehen karreraren. Zenbait arazo izan zituen eta azkenean, 13. izan zen, hirugarren Espainiako txapelketarako. Berriz ere lana gogotik egin eta bigarren lasterketan 12. izan zen, bigarren Espainiako txapelketarako. Meritu handiko postua, dudarik gabe, aurten maila altua baitago. Albacetekoa denboraldiko hirugarren lasterketa izan zen Mariezkurrenarentzat.

Makinariak • Banatzaileak • Errentak • Berriztatzeak • Berriztatzeak • Berriztatzeak • Berriztatzeak • Berriztatzeak • Berriztatzeak • Berriztatzeak • Berriztatzeak

**STIHL eta VIKING aukeratzen duzunean makinari hoberena baino askoz ere gehiago eskuratuko duzu.**

Zure lorategirako behar duzun guztia zuregandik oso hurbil dagoen STIHL eta VIKING-en Banatzaile ofizialean aurkituko duzu

**BANATZAILEA**

**José Luis San Miguel**

DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

## ITUREN

# Hasi dira mutikoen eskola zaharra konpontzen

Udalak Izarra enpresari esleitu dizkio obrak

## Arkaitz MINDEGIA

Espainiako Gobernuak udal inbertsioetarako emandako dirulaguntza mutikoen eskola zaharraren egitura konpontzeko erabiliko da eta dagoeneko lan horiek hasiak dira. Izarra eraikuntzak egiten ditu obrak. 84.423 euroko laguntza iragarria dago lan hauetarako.

## Erasun txapeldun 19 urtez azpikoetan

Ekainaren 6an Azpeitin jokaturako Urrezko Aizkorako finalean garaipena lortu zuen Ander Erasunek 19 urtez azpikoetan kategorian. Hori irabazita, 23 urtez beheitikoa ere jokatuko du Erasunek Aitzol Atutxa joan den urteko txapeldunaren kontra. Zorionak garaipe nagatik eta zorte on hurrengorako!

## Bestaberri Eguna

Bestaberri Egunean udal agintariek eta herritarrek meza entzun ondotik, azken urteetan berreskuratutako Dantza Luzea dantza zuten herriko dantzariak. Segidan, Udalak luntxa eman zuen herriko estalpean eta dantzariak, berriz, bazkari eder baten bueltan bildu ziren.

## Trikidantzen disko berriaren aurkezpena

Ekainaren 13an aurkeztu zuen Trikidantzek bere lehenbiziko diskoa Elizondoko Lur dantzalekuan. Jende asko bildu zen eta sorpresa asko izan ziren. Horietako bat aipatzekotan, erran, Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunek ireki zutela aurkezpena eta jendearen harridura nabarmena izan zela.



ARGAZKIAK: MIRIAM ALTZURI

## Trinitate Eguna giro ezin hobean

Eguraldi tristearekin, baina bikain joan zen Trinitate Eguna. Urtero bezala, herritarrez gain, inguruko herrietatik ere jende parrasta hurbildu zen Mendaurrera. Eguerdian enbaltsetan elkartu ziren bazkari eder bat eginez, eta ondotik, dantzaldia izan zen Kristian akordeoilariarekin. Ilunabarrean, musika doinuekin Aurtitzera jaitsi ziren eta dantzaldia izan zen Iturengo plazan.



ARGAZKIA: I. UGALDE

## Tximistak jota 23 ardi eta aharia hilak

Ekainaren 6an ezusteko haundia gertatu zitzaion Fermin Elizalderi. Arratsaldean egin zuen eguraldi txarraren eta batez ere, bota zituen tximisten ondorioz, 23 ardi eta ahari bat hil zitzaizkion, tximistak erreta. Biharamunean putre andana ibili zen inguruan.

**APARAN, S.A.**  
BIBIKOLAILA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta berrizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**Behetik**  
AULKI JASOTZALEAK

Añorgatik 14  
Tel: 943 368 781  
671 073 686  
behetik@behetik.com  
www.behetik.com  
20018 DONOSTIA



## ZUBIETA

# Haurrentzako jolasak egingen dira uztaileko goizetan astelehenetik ostiralera

Leire eta Ixiar Bazterrika izanen dira begiraleak

### Fermin ETXEKOLONEA

Aurreko urtean izandako arrakasta ikusita, aurtengo udan ere non gozatua izanen dute haurrek. Uztaileko goizetan denetariko jolasak egingen dituzte, astelehenetik ostiralera, 9:30etik 12:30era.

Joan den urtean bezala, Leire Bazterrika herritarra eta Ixiar Bazterrika iturendarra izanen dira arduradunak, eta gisa guztietako ekin-tzak egingen dituzte.

Iaz 13 neska-mutiko elkartu ziren eta Udalak eskola utzi zien han bilzteko. Besteak beste, eskulanak egiten aritu ziren. Horrekin batera, eskolatik kanpora ere ateraldiak egin zituzten. Bestalde, Udalak lehenengo aldiz marrazki eta kantu lehiaketa antola-



UTZITAKO ARGAZKIA

**Herriko gaztetxoek ederki pasatzeko aukera izanen dute uztail honetan ere.**

tu zuen joan den urteko Amabirjin bestetan eta horretan parte hartzeko marrazkiak ere egin zituzten. Taldean aurretik prestatukota abesti bat ere kantatu zuten bestetan.

### Mendaur Plana laster martxan

Zubietarekin batera, Ituren eta Aurtitz, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillako ur arazoak konponduko dituen Aurtizko araztegia

laster jarriko da martxan. 2006an hasitako obrak aspaldi akituak daude, baina oraindik ez da martxan jarri ur hornidura sistema berria. Eguna ez dago zehaztua baina hilabete

honen bukaerarako ez bada, egun gutxi barru hasiko omen da funtzionamenduan.

Mendaur Planaren barne dago jaso obra hau, eta Zubietaren kasuan, herritik ura Aurtitzera eramane eta han araztutako ura berriz bueltan etorriko da.

### Luis Mutuberria omendua

Ekainaren 10ean Arkupeak Elkarteak urteroko omenaldia eskaini zien aurtien 85 urte bete dituztenei eta Urrezko eta Diamantezko Ezteiak egin dituztenei. Tartean herritar bat izan zen: Luis Mutuberria Erro. 85 urte bete ditu aurtien eta besteak bezala, origarria jaso zuen berak ere.

1951tik  
*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

edredoi fundak  
albomozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
maindireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

2009ko udaberriko-udako  
kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA  
948 230 634

## EZKURRA

# Hildako zazpi bazkideei omenaldia egin die Txantxangorri elkarteak

Meza entzun ondotik 40 bazkide bildu ziren balkaltzera

## Fernando ETXEBERRIA

Txantxangorri ehiza elkarteak hildako bazkideak omendu zituen joan den ekainaren 13an. Haien aldeko mezarekin hasi zuten eguna.

Ehiza betidanik ezkurako herritarren «*kirol maitatua*» izan dela gogoratu zuten eta horren lekuko, agiri historikoak aipatu zituzten elizkizunean: «*1567an jauntxo edo boteretsu batzuk Ezkurako ehiztariei laguntza eskatu zieten ehizaldi haundi eta berezi batean laguntzeko*». 1966an, berriz, lehenengo ehiza taldea sortu zen, eta



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko ehiztariek hildako beste bazkideak gogoratu zituzten ekainaren 13an.

Trifon Gastearena izan zen lehendakaria. Gerora Bautista Mariez-

kurrenak ordezkatu zuen. Txantxangorri elkarte beranduago sor-

tutakoa da, 1987an, hain zuzen, eta gaur egun, 58 bazkide ditu.

## OMENDUAK

Guztira zazpi kide izan zituzten gogoan omenaldian: Bautista Mariezkurrena, Francisco Gorostiaga, Calixto Juantorena, Antonio Noble, Patxi Gastearena eta Manuel Elizalde.

Mezan Jaione Olazabal eta Jon Pellejero abeslariak ere parte hartu zuten eta egunari segida emateko, 40 bazkide inguru elkartu ziren Ezkurra jattetxean, bazkaldu eta anekdotak kontatzeko, tartean gehiegikeria batzuk, ehiztari batek bi kiloko usoa bota zuela, adibidez.

## ERATSUN

# 35 lagun elkartuko dira larunbat honetan Donezteben eginen den afarian

Herritarren afaria egiten den hirugarren aldia da

## ttipi-ttapa

Lagunartean sortu zen ideia segida izaten ari da, eta aurten hirugarren urtez herritar guztiak elkartzeko afaria antolatuta da. Doneztebeko Sanpedro bestak aitzakiatzat hartuta, larunbat honetan, ekainak 27, eginen da

afaria, Belarra jattetxean.

Duela hiru bat urte hasi ziren afaria antolatzen herrian, Lokariko Amabirjin bestatik aparte, gutxi elkartzeko direlako. Lehenengo aldian Donezteben egin zuten eta 80 bat lagun bildu ziren. Duela bi ur-

te Auzan egin zen eta orduan gutxiago elkartu ziren. Aurten Doneztebe aukeratu dute berriz ere, herritik kanpo joandakoentzat ere toki ona delakoan. Guztira 35 lagunek eman dute afarirako izena. Seguru ez dela girorik faltako.



ARGAZKIA: YESICA ESKUDERO

## Goikoetxeko teilatuko obrak

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin Goikoetxeko teilatua konpontzeko lanak laster hasiko dira. 29.734 euroko subentzioa hartuko da eta Beintza-Labaiengo Telletxea zurgindegiak eginen ditu lanak. Obrak akitzeko hiru hilabeteko epea izanen du.



## BAZTAN-BIDASOA

### Gasbidearen %80a egina dagoela adierazi du Roig kontseilariak

Eskualdeko alkateekin bilera egin zuen ekainaren 15ean Bertizen

#### ttipi-ttapa

Baztan - Bidasoako gasbideak izanen dituen 33 kilometro eta erditik 28 eginak daude. Lanen %80a egina dago, beraz. Hala jakinarazi zuen ekainaren 15ean Bertizko jauregian Jose Maria Roig Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Lan kontseilariak, inguruko alkateekin izandako bileran. Bi-

leran inguruko egoera ekonomikoaz aritu ziren eta eskualdean hornidura eta garapen arloan departamentu horretatik aurrikusiak dauden azpiegiturak azaldu zituen kontseilariak.

Gasbidean eginen den inbertsioa 8,7 milioi eurokoa da eta horietatik 3,4 milioi Gobernuak paratuko ditu. Gasbideak Lesaka eta Elizondo



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Eskualdeko udaletako ordezkariak Roig kontseilariarekin.

elkartuko ditu eta banaketa sarea izanen du Sunbilla, Doneztebe, Nabarte, Legasa, Oieregi, Oronoz-Mugairi, Arraioz, Irurita eta Elbeten. 6.200 bizilagun hornituko ditu denera. Lanen akabaila N-121A errepideko lanen garapenarekin lotua dagoela aipatu zuen kontseilariak.

Bileran Doneztebeko az-

piestazio elektrikoa proiektuaren berri ere eman zen. Lesaka eta Doneztebe arteko argindar linea berria egin da dagoeneko eta Doneztebeko azpiestazioarekin, Iberdrolak eskualdeari eskaintzen dion argindar zerbitzua uztailerako hobetuko da.

Langabeziaren ere aritu ziren eta inguruan gaitu honen inguruan kezka

handia bada ere, Gobernuko ordezkariak aipatu zuenez, Baztan-Bidasoan langabeziaren eragina Nafarroa osoa baino tikiagoa da. Honela, 2009 urtean Nafarroan langabezia 36.375 lagunetik 37.832 lagunera igo den bitartean, Doneztebeko bulegoan pixka bat jaustia egin da, 975 lagunetik 968ra.

## LITERATURA

### Nafarroako Gobernuak antolatutako literatur lehiaketako sariak eskualdean

Arlo guztietan izan dira sarituak

#### ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzendutako euskarazko literatur lehiaketetako sariak banatu zituen ekainaren 12an, Nafarroako Jauregian, eta hainbatetan eskualdeko ikasleentzat izan ziren.

Bertso-paper lehiaketan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan, **Leitzako** Erlleta ikastetxeko

Joanes Illarregik eskuratu zuen lehen saria, **Lesakako** Tantarumairu ikastolako Paulo Ramosek bigarrena eta **Elizondoko** Baztan Ikastolako Elur Meokik hirugarrena. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ere lehen saria **Leitzako** eskolara joan zen, Martxel Intxaustik irabazi zuen. Bigarren saria **Doneztebeko** San Miguel ikastetxeko Beatriz Maritore-



UTZITAKO ARGAZKIA:

Literatur lehiaketako sarituak Perez Nieves kontseilariarekin.

nak lortu zuen.

DBHko lehen zikloan, bigarren saria **Goizueta**ko eskolako Ainhoa Zabaletarentzat izan zen eta hirugarrena **Berako** Labiaga ikastolako Ibon Txoperenarentzat. DBHko bigarren zikloan, hirugarren saria **Doneztebeko** Mendaur institutu-ko Irati Arrietak jaso zuen.

Poesia lehiaketan, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko lehen sa-

ria **Lesakako** Irain ikastetxeko Naiara Martinek eskuratu zuen eta bigarrena ikastetxe bereko Naiara Mitxelenak.

Narratiban, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, bigarren saria **Berako** ikastolako Aritz Ibarrak jaso zuen eta akzesita **Lesakako** Irain eskolako Idoia Iratzokik. DBHko lehen zikloan, lehen eta bigarren saria **Berako** ikastolako Patri-

zia Etxegarai eta Garaiz Conderentzat izan zen eta akzesita ikastola bereko Ainara Etxebiderentzat. DBHko bigarren zikloan, lehen saria **Leitzako** Amazabal institutuko Edurne Zabaletak irabazi zuen.

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei zuzendutako irakurmena eta deklamazio lehiaketa, **Leitzako** Sugar taldearentzat izan zen.

## ARKUPEAK

## Urrezko eta Diamantezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia egin die Arkupeak Elkarteak Gorraizen

16 bikote eta 85 urteko 36 lagun omendu dira

## ttipi-ttapa

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak urteroko omenaldi-bazkaria egin zuen ekainaren 10ean, Gorraizen. Urrezko eta Diamantezko Ezteiak bete dituzten senar-emazteak eta 85 urte bete dituzten bazkideak omendu zituen, eta

ohi bezala, meza entzun ondotik, banan-bana oroigarriak banatu ziren.

Aurten guztira, Urrezko Ezteiak bete dituzten 15 bikotek jasodute omenaldia; Diamantezko Ezteiak egin dituzten beretze bikote batek; eta 85 urte bete dituzten 36 lagunek.

## URREZKO EZTEIAK

Ramon Migeltorena Mitxelena-Xole Urrutia Irigoien	AMAIUR
Eulogio Jaurena Ustaritz-Conchita Bidegain Ustaritz	ARIZKUN
Fermin Etxegarai Gainza-M <sup>a</sup> Jesus Etxebeste Beola	BERA
Francisco Moreno Lopez-Angustias Gama Rivas	BERA
Pedro Igartua Elgarresta-Aurora Almandoz Aiertza	DONEZTEBE
Jose Larroque Duhalde-Korpus Antizar Iriarte	DONEZTEBE
Juan Cruz Iurreta Sarratea-Elvira Nemours Ezponda	ELIZONDO
Paulino Retegi Petrikorena-M <sup>a</sup> Jesus Arano Barberia	ERATSUN
Juan Zestau Labaien-M <sup>a</sup> Jesus Juantorena Deskarga	EZKURRA
Francisco Apezetxea Zubieta-Felisa Iparragirre Almandoz	GOIZUETA
Pedro Sorzabalbere Otxoteko-Francisca Aitzugarai Telletxea	IRUN
Francisco Biurrarena Bereau-Mercedes Uitz Gogortza	LEITZA
Eduardo Zabala Telletxea-Feliciana Zestau Zabaleta	LEITZA
Fulgencio Oteiza Maisterrena-M <sup>a</sup> Carmen Ugarte Gortari	ORONÓZ-M.
Francisco Graziarena Mitxelorena-M <sup>a</sup> Rosa Elizondo Bazterrika	SUNBILLA

## DIAMANTEZKO EZTEIAK

Miguel Saldias Grajirena-Angela Erasun Iriarte	LABAIEN
--	---------



## 85 URTEKOAK

Maria Ibarrola Zabala	ARANTZA
Eulogio Jaurena Ustaritz	ARIZKUN
Juan Jose Iratzoki Nesprias	BERA
Maria Loiarde Aranburu	BERA
Antonio Maritorea Larrosa	BERA
Jabier Taberna Vers	DONEZTEBE
Jose Jabier Telletxea	ELGORRIAGA
Vicenta Inda Arregi	ELGORRIAGA
Juana Agirre Majirena	ELIZONDO
Gabriel Goñi Mongaburu	ELIZONDO
Bibiana Duhalde Erramuzpe	ERRATZU
M <sup>a</sup> Candelaria Erramuzpe Oses	ERRATZU
Felisa Salaburu Irungarai	ERRATZU
Maria Aizpurua Perurena	GOIZUETA
Antonio Apezetxea Zubiri	GOIZUETA
Mertxe Perurena Apezetxea	GOIZUETA
Elias Uitz Madariaga	IGANTZI
Manuel Aznar Lopez	IRUN
Adoracion Sanchez Sanchez	IRUN
M <sup>a</sup> Luisa Solis Casas	IRUN
Pakita Garin Caballero	LEITZA
Jose Garro Etxarri	LEITZA
Fermin Lazkano Baraibar	LEITZA
M <sup>a</sup> Eugenia Olano Baraibar	LEITZA
Carmen Larralde Gaztelumendi	LESACA
M <sup>a</sup> Carmen Ugarte Gortari	ORONÓZ-MUG.
Estefania Inda Aroztegi	ORONÓZ-MUG.
Basilio Erasun Elizalde	SALDIAS
Jesus Mikelarena Baleztena	SALDIAS
Fermin Ibarra Agesta	SUNBILLA
Maritxu Lastiri Manterola	SUNBILLA
Fermina Almandoz Ibarra	SUNBILLA
Lucien Arrate	URDAZUBI
Cristobal Erasun Elizalde	URDAZUBI
Dionisia Elorga Etxeberria	URDAZUBI
Luis Mutuberria Erro	ZUBIETA

## BERTIZ

## Deskontuak eskualdeko turismo enpresetan

## ttipi-ttapa

Turismo sektorea indartzeko Nafarroako Gobernuak abiatutako *Navarra, Maneras de Vivir* kanpainarekin bat egin dute eskualdeko turismo entitate aunitzek. Guztira 76 landa-etxe, hostal, apartamentu, alberge eta hotel sartu dira eskaintza honean eta alojamenduhoriek bisitarien artean, promozioan sartuta dauden baliabide turistikoetarako doako sarrerak eta deskontuak banatuko dituzte. 2009. urte bukera arte egonen da indarrean neurria. Alojamenuek enpresa hauetako sarrerak edo deskontuak oparituko dituzte: Amaiurko errota, Zubietako errota, Donamariako Jauregia dorretxea, Urdaizubiko leizeak, Narteko Bidasoa Kultur zerbitzuak, Oronoz-Mugairiko Leurtza abentura., Zugarramurdiko Sorginen leizeak eta museoa, Bertizko Jaureria Natur Parkea, Oiergiko Basoan zerbitzu turistikoak, Lesakako Burdinaren zentrua, Lesakako 4x4 Bortziariak, Beintza- Labaiengo Gesrural Gestion turistica eta Arizkungo Santxotena parke museo. Gobernuak Nafarroa osoan 1,25 milioi euro inbertituko ditu kanpaina honetan.

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK**  
zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**  
Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua aukeratu izanaren frogagarria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPara 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratuak dira proiektua **can**



## GOIZUETA

# Euskal Herriko Kantu Txapelketan bigarren gelditu da Ainhoa Zabaleta

Aldaketarik ezean, emanaldia eskainiko du abuztuan herrian

### Esteban AROTZENA

Hil honen 6an Barakaldon (Bizkaia) ospatutako Euskal Herriko Kantu Txapelketaren finalean bigarren postua eskuratu zuen Ainhoa Zabaletak, 13 urteko kantari eta konpositoreak.

Hil berria den Joxe Luis osabari Ainhoak berak egindako *Itzaltzen zoazela* pieza kantatu zuen neskatoak Barakaldon. Letran gai sozialak ukitzeagatik sari berezia eman zioten gainera. Dena den, non aukeratu bazeukan Ainhoak, berak konposatutako beste sei kanta eta era askotako beste hainbat herri-kanta baitauzka bere erreperorioan.

DBHko lehenengo maila ikasten du Ainhoa Zabaletak Goizuetako eskolan. Hagitz ikasle ona dela ere jakin dugu.

Aurtengo ikasturtean gitarra ikasten ari da Musika Eskolan, baina umetatik piano ikasketak egin ditu. Musika tresna hau erabiltzen omen du gainera kantak konposatzeko, aurrena letra idatziz eta gero musika partatuz.

### EMANALDIA ABUZTUAN

Etorkizunean musikara dedikatzea da gaztetxo goizuetarraren ametsetako bat. Talde batean kantatzeko proposamena jaso du dagoeneko, baita hurrengo abuztuan herrian kantaldia emateko ere. Ikaragarriko ilusioa egin omen dio Ainhoari eskari honek. Gauzakbide omenan badoaz, Amabirjin aurrerako astean izanen litzateke hau, azken bi urteetan bezala, Udalak Labaderoan prestatuko



Ainhoa Zabaleta kantuan, bere gitarraarekin.

ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA



### Lehen Jaunartzea

Berandu xamar bada ere, ezin genuen argitaratu gabe utzi maiatzaren 31n Lehen Jaunartzea ospatu zuten lau morrosko hauen argazkia.

ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

duen emanaldian.

Musikarako eta ikasteko dohainez gain, bertotarako sen aparta omen du Zabaleta gaztetxoak. Horixe esan zigun behintzat Estitxu Arotzena bere irakasleak. Eskualdeko bertso-

paper lehiaketa irabazi berria du aurtun ere, eta Barakaldon kantatu zuen egun berean Larrainzarren ari beharra zen bat-bateko eskolarteko bertso txapelketan. Pena eman omen zion ezin joan izanak.

Bukatzeke, esan, maketatxo ere grabatu duela Ainhoak bere kantekin. Etxean egina da eta kopia gutxi xamar kaleratu ditu, familiar, lagunartean eta Gaztetxean banatzeko hainbeste.

**COLCHONES ATSEDEN**  
KOLTXOI FABRIKA

Zure ametsen fabrika

**ESTREINALDI PLANA ZURE AMETSEN FABRIKAN**  
Aukera ezazu Atsedén estreinaldi plana edo ...

**BASIC PLANA:** Koltxoa + burukoa: **jaso zure oparia**  
**MEDIUM PLANA:** Koltxoa + somierra + burukoa: **%5eko deskontua**  
**PLATINUM PLANA:** Koltxoa + kanape toleskorra edo ohatze artikulatua + burukoa: **%10eko deskontua**  
**GOLD PLANA:** Viscolaxtic Koltxoa + kanape toleskorra edo ohe artikulatua + viscolaxtic burukoa + edredoi nordikoa + funda nordikoa: **%15eko deskontua**

**12 hilabete arte interesik gabe ...finantzaketa bikaina**  
[www.colchonesatseden.com](http://www.colchonesatseden.com)  
 Aprobetxatu promozioa

Eta hiru guztia gure datiko prezioetan, lantegiko prezioetan.

Iruña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Bilbotarraia kalea • 948 346 000 • BILBATA • Inulanea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

## LEITZA

# Kax Kax Euskara Taldea aurkeztu dute

Euskararen erabileraren inguruko neurketa ere egin dute

Asier IMAZ

Euskara bultzatu eta sustatzea. Horixe da Kax Kax Euskara Talde sortu berriaren helburua. Herrian talde «ez-formal» baten beharra zegoela ikusita, 2008ko urrian abiatu zuen Kax Kaxek bere ibilbidea eta geroztik, taldea osatzen, lanildoak hautatzen, kaleneurketak egiten eta abar ibili dira. Egindako lanaren fruitua ekainaren 16an aurkeztu zuten.

Taldea aurkezteaz gain, euskararen erabileraren kale neurketaren emaitzak ere jakinarazi zituzten. Horren arabera, herritarren %72ak euskara erabiltzen du; %26,4ak gaztelera, eta %1,6ak beste hizkuntzaren bat. Adin taldeei dagokienez, haurrak eta gazteak dira batez ere euskaraz mintzatzen direnak (haurren %91,9a eta gazteen %93,4a), eta gutxien helduak (%63,4) eta adinekoak (%50). Horrekin batera, aipatu, emakumezkoek gizonen baino gehiago erabiltzen dutela euskara: emakumeen %78,6ak eta gizonen %65,7ak.

## Aurrera finalerdietan

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan multzo berean jokatu dute Leitzak eta Uhartek. Etxetik kanpoko partidari bi partida irabazi zituen bakoitzak, aldeko eta aurkako tanto kopuru berarekin. Berdiketa Leitza hautespen, etxekoek 15 tanto errentaz irabazi baituzten. Lehen ligaxka amaituta, bi taldeek finalerdietarako txartela lortu zuten: Aurrerak lehen postuan eta Uhartek laugarren. Ondorioz, elkarren aurka bi partida jokatu beharko dituzte berriro: etxean eta kanpoan. Joanekeo partidak Uhartek jokatu ziren joan den asteburuan eta itzulerakoak larunbat honetan egingen dira Amazabalen.

## Literatur sariak

Nafarroako Gobernuak euskaraz antolatutako lehiaketetan Leitza-ko irabazleak ere izan ziren: Joanes Illarregi, Martxel Intxausti, Mikel Lasarte Cia, Erleta eskola-ko laugarren mailako Sagarikasle taldea eta Edurne Zabaleta Sasturain.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Euskara Taldearen aurkezpena ekainaren 16an egin zuten.



ARGAZKIAK: ASIER IMAZ

## Sagardo Egun arrakastatsua

Kultur Taldea eta Aurrera Kirol Elkarteak «oso gustura» gelditu ziren ekainaren 13an lehen aldiz egin zen Sagardo Egunak izandako erantzuna ikusita. 700 bat sagardo botila edan ziren guztira, Aurrerako eta Kultur Taldeko lagarekin 400 baso saldu ziren, baita grabaturik gabeko beste 150 baso ere. Pintxoetan 550 txorixo egosi saldu ziren eta gaztarenak 400 inguru. Hurrengo urtean antzeko zerbitzu egiteko gogoz gelditu dira antolatzaileak.



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

## Oialde Txokoren denboraldi bukaera

Astebururo 12 eta 16 urteko gazteak hutsik egin gabe bildu dira Oialde Txokon, baina orain, ikasturtea bukatu dute. Sasoi bukaera ospatzeko, monitorek jokuak prestatu zituzten eta gurasoek arratsaldeko eskaini zieten. Balarazioa ere ona izan da, arduradunak pozik gelditu direlako gazteen parte-hartzearekin eta datorren neguan berriz irekitzeko asmoa dutela aipatu dute.

ttipi  
ttapa

www.ttipi.net

info@ttipi.net

(0034) 948635458



## ARESO

### Larunbatean Sendavivara joateko irteera antolatu du Guraso Elkarteak

Autobusa bete arte edozein joan daiteke

**Juana Mari SAIZAR**

Gazteak lagunartean Sanpedro jaiak prestatzen ari dira. Larunbat eta igande honetan, ekainak 27 eta 28, ospatuko dira. Ekitaldien artean, larunbaterako Guraso Elkarteak Sendavivara antolatu duen irteera dago. Nahi duten guztiak joan daitezke, autobusa bete arte.

Nabari da bai uda ailegatu zaigula eta ikasteko garaia alde batera gelditu dela. Festatan murgildu gara erabat.

#### Sanjuan bezperako sua

Herriko gaztetxoak Sanjuan bezperako sua

egiteko prestaketetan ibili dira aurten ere, herriari barna pentsu-zakuak, egunkariak, kartoiak eta abar biltzen etxez etxe. Azken aldian, ohitura bihurtu da, eta jendeak materiala gorde egiten du umetik egun horretan disfruta dezaten. Ikusgarria izaten da, denak bizikletaz soka batetik tiraka ibiltzen baitira herri guztian.

#### Egur lotearekin dirulaguntza

Egur lotearen zozketa ekainaren 18an egin zen baina aurten goan berrikuntza batbaldugu aipatzeko: Na-



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR



**Korpus Eguneko prozesioa**  
Bestaberri edo Korpus Egunean aspaldiko ohiturak mantendu egiten dira herrian. Prozesioa egiten da eta batez ere, aipagarria dena, Polañenean jartzen den aldea da. Aspaldiko ohitura da eta ia mende osoa bada txoko horretan jartzen dela, 90 urte zehazki. Aurten ere ez zuten hutsik egin herritarrek.

farroako Gobernutik agindu berri bat etorri da, egurra botatzeko garaian, lanean profesionalek ari beharko dute-

la esanez, arriskuak baztertzeko asmoarekin.

Lege berriaren arabera, %80ko subentzia

jasoko da. Udalak %20 kobratuko die herritarrei lotea hartzeko garaian eta 15 euro ordaindu beharko dira.

## ARANO

### Jaietako artisau erakusketan parte hartzeko gonbitea luzatu dute antolatzaileek

Tortilla lehiaketan parte hartzera ere animatu dituzte herritarrek

**Maidar ANSA**

Azken urteetan bezala, aurten ere Santio jaietan ostiral arratsaldean, artisau azoka ospatu nahi dugu. Horretarako, zuen laguntza

behar beharrezkoa dela badakizue. Horregatik zuen postuak prestatzeko deia egin nahi dizuegu. Zuen eskuz egindako edozerk balio du, baita zuen ba-

serrietako produktuek ere. Sagardoa, gazta, txakolina eta nahi dena ekartzeko aukera zabalik duzue. Beraz, animatu, denon artean festa polita antolatzen

da eta.

#### TORTILLA LEHIAKETA

Egun berean urteroko tortilla lehiaketa ere antolatu dugu eta horretarako ere zuen

laguntza behar beharrezkoa izango da. Animatu parte hartzera!

Jaietako gainerako egitarauaren berri hurrengo alean emango dugu.

## BAZTAN

# Kepa Arizmendi margolari elizondarra hil da Baionan

Odol isuri bat izan eta etxe atarian hil zen

## ttipi-ttapa

Ekainaren 8ko goizean hil zen Kepa Arizmendi, sortzez elizondarra baina urte aunitzez Lapurdiko hiriburuan, Baionan, bizi zen 50 urteko iheslari politikoa eta margolaria. Etxe atarian hilik topatu zuten Arizmendi, odol isuri bat izan eta kalean bertan. Hala adierazi zuen AAM Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, eta bide batez, Keparen senide eta hurbilekoei elkartzuna adierazi nahi izan zien.

Ekainaren 11n erre-fuxiatuek agurra egin zioten Baionako beilatokian, eta handik Elizondora eraman zuten. Egun berean, ilunabarrean harrera egin zionten eta ekainaren 14an, berriz, omenaldia.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Sortzez Elizondokoa izan arren, Kepa Arizmendi aspaldiko urteetan Lapurdin bizi zen.**

Margolari gisa hainbat lan egindakoa zen, eta bertze artista batzuekin batera, Ur taldeko kidea zen. Bere aldeko meza, ekainaren 12an egin zen Elizondon.

Kepa Arizmendi aski ezaguna zen Baztanen eta inguruan. Erraterako, **Ttipi-Ttapan** hainbat kolaborazio egindakoa da eta Xorroxin Irratiaren logotipoa ere berak marraztutakoa da.



«Espazioa dugu bizilagun, partikulen artean zureak ere...»

Kepak maiz bere margolanak holako esaldiekin osatzen zituen...

Lagunarteko gizona izan da beti, sortzaile hutsa, xumea eta hitz guttikin aunitz erden duten horietakoa...

Zure heriotzak solasik gabe utzi gaitu...

Gure artean begiradak negartsu eta ixilunea da nagusi...

Hasieran zureak diren hitzak gureak egin ditugu, espazioaz bezainbertze

bakoitzak bere oroitzapenak dituela bizilagun eta gure oroitzapenetan dauden partikulen artean zu beti hor egonen zarela erterko.

Edonon zarela ere, muxuak eta besarka haundi-haundi bat.

**BAZTANGO MARGOLARIAK ETA UR TALDEA**



**igogailuen instalazioa**  
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com

Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu



**ESKAITZA BEREZIA**  
— deskonturik —  
Pare 1 oinetako → %10  
2 pare oinetako → %20  
3 pare oinetako → %30  
**EZ UTZI PASATZEN!**  
Santiago, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457



**MENDI ostatu**  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**MENDIALDE Jatetxea**  
T: 948 453 060  
N: 121-B, 66-9m  
TAMAIUR



## BAZTAN

# Azpilkuetako Sanfermin bestak uztailaren 4tik 7ra

Zikiro Egunean, bazkaldoan, herritarren artean hainbat txapelketa jokatu dira

### Larunbata 4

**12:00etan** bestei hasiera emateko txupinazoa. **16:00etan** plater-tiroketa lehiaketa eta sari banaketa. **21:30ean** Baztan-zopak. **Ondotik** gaupasa JALISKO BAND taldearekin.

### Igandea 5 Haurren Egune

**11:30ean** Meza Nagusia. **16:00etan** mus txapelketa eta ondotik sari banaketa. **16:30ean** Patxin eta Potxin pailazoan ikusizuna. **Ondotik** txokolatada. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia FRANTZISKO akordeoilariarekin. **22:00etan** patata tortilla lehiaketa. **Ge-ro** tortillak dastatzeko aukera.

### Astelehena 6 Zikiro jatea

**8:00etan** sua piztea. **10:00etan** gosaria. **14:00etan** zikiro jatea FRANTZISKOK alaituta. **Ondotik** hainbat txapelketa. **21:00etan** ezkiljotzea. **22:00etan** afa-ria. **Gauean** dantzaldia FRANTZISKOREKIN.

### Asteartea 7 Sanfermin Egune

**11:00etan** Meza Nagusia Sanfermin sainduaren omenez. **14:00etan** Gazte Bazkaria. **16:00etan** partxis lehiaketa eta sari banaketa. **18:00etan** frontenis txapelketako finala eta sari banaketa. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia JOXE ANJELEKIN. **Goi-zaldera** GAIXOA NI.



ARGAZKIAK: MIREN BARAZABAL

**Azpilkuetako Sanferminetan, gazteen gustukoak izaten den ekitaldietako bat Gazte Bazkaria izaten da. Aurtengoan asteartearrekin egingen da, bestetako azken egunean. Seguru ez dela girorik falta!**



## PEDRO GARMENDIA, S.A.

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685  
 Faxa: 948 580 973  
 ELIZONDO (Nafarroa)  
 garmendia@red.renault.es



**LAGUNA EXPRESSION 110CV**

2008 urtea · Klimatzagailua  
 Aluminioko-hagarak  
 Abiadura mugatzailea  
 Aurreko eta gobeiko erretrotokore elektrikoak  
 Lantzeko barak  
 Irratia Mono CD  
 Bluetooth  
 Euri sentimena  
 Argien pizte automatikoa  
 Lantzeko kontrola  
 Lantzeko kontrola  
 GARANTIA: 2011ko itxura bitartean

**SCENIC DYNAMIQUE  
1.90CI 130CV**

2008 urtea  
 Klimatzagailua  
 Aluminioko-hagarak  
 Abiadura mugatzailea  
 "Eska libreak" Renault txartela  
 Erretrotokore elektrikoak  
 Aurreko erretrotokore libreak  
 Euri sentimena  
 Argien pizte automatikoa  
 Albotako eta gobeiko kontrolak  
 Pack elektriko  
 Irratia Mono CD  
 Norabide kontrola  
 Lantzeko kontrola  
 Bluetooth



**MEGANE LUXE-PRIVILEGE  
2.0 165CV**

2007 urtea  
 Xenon Argiak  
 16"ko aluminioko-hagarak  
 Presuratuaren presio detektatzailea  
 Gibeiko hurbiltasun tadarra  
 Klimatzagailua  
 Lantzeko taponomia eta bolantea  
 CDak kargatzeko irratia  
 Saria elektriko  
 "Eska libreak" Renault txartela  
 Abiadura mugatzailea  
 CDak kargatzeko irratia  
 GPS nabigatzailea  
 Argien pizte automatikoa  
 Euri sentimena  
 Pack elektriko  
 Bluetooth



## BAZTAN

# Zaborrak behar bezala bereizten ez direlako neurriak hartu ditu Udalak

Edukiontzi guztiak elkarrekin paratu dira errazago bereizteko

## Maite OTEIZA

Hondarreko hilabetean, Baztango herrietan zenbait kexa agertu dira, kontenedoreak edo zaborrontziak lekuz aldatu dituztelako. Honen arrazoia batzarrearen bidez jakinarazi zitzaizen herritarrei: Arangurengo zabortegitik mehatxatu dutenez, Baztandik ez badute zaborra ongi bereizita jasotzen, ez dute onartuko hemendik eramandako zakarrrik.

Badirudi, zabor organikoentzako den edukiontzietarat, papera, kartoia, plastikoak, beira... denetarik botatzen dela. Bereziketa ez bada hemen egiten, hango langileek egin behar dute.

Arazo honi irtenbidea emateko, herri guztiak hiru zabaldu lekutan zaborrontzi guztiak elkarrekin otu zaio Udalarai, denak elkarrekin egonez gero, zaborra errazago bereiziko delakoan.

Baztandar guztien arazo garrantzitsu honi aurre egiteko, denen inplikazioa beharrezkoa

da, irtenbide gabeko arazoa bihur ez dadin.

## Ikasturte akabaila

Ikastetxe guztietan ikasturteari adio erran diote ikasleek. Urte osoan, lan gogorra egin ondotik, ongi akitu nahi izan zuten eta hainbat besta eta ateraldi egin zituzten. Ikasleak nekatuak, nerbiostuak, airetuak ibili ziren azken lanei bukaera emanez. Orain, ordea, bateriak kargatzeko tenorea da, hurrengo irailan gogotsu hasteko. Ongi pasa uda!

## LEKAROZKO INSTITUTURA BISITAK

Herrietako eskoletako, San Francisco Javier ikastetxeko eta Baztan Ikastolako 6. mailako ikasleek ekainean bisita gidatuak egin zituzten Lekearozko instituturat. 2009-10 ikasturtean euren ikastetxe berria nolakoa izanen den eta nola funtzionatzen duen ezagutzeko aukera izan zuten. Agustin Olabe zuzendariak harrera egin



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

## Arizkun albokariaren doinura

Nafarroako Albokariak elkarteak antolatuta, Euskal Herriko VIII. Albokariaren Topaketa egin zen ekainaren 6an Arizkun. 30 bat musikari elkartu ziren eta goizean goizetik albokariaren doinuak nagusitu ziren. Goizeko kalejira eta ekitaldien ondotik, bazkaldu egin zuten eta arratsaldean Mutildantzak eta Muxikoak izan ziren. Nafarroako Albokariak taldearen erranetan, «gure inguruan kasik desagertua izatetik, musika-tresna zabaldua izatera pasatu da». Aurten zortzigarren edizioa bete du Albokari Topaketak, baina lehen aldia izan da Nafarroan ospatu dela.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Almandozko musulari finak

Kaliforniako Iparreko Ibarra izeneko klubean mus txapelketa egin dute berriki eta irabazleen artean, baztandarrek izan dira nagusi, etxe berekoak, gainera, Almandozko Sarratea familiakoak. Txapeladunak Anastasio Sarratea eta Guillermo Blanco asturiarra izan ziren eta azpitxapeladunak Eugenio eta Fulgencio Sarratea anaiak, Anastasioren senideak. Lerro hauen bidez, inguruan bizi diren baztandarrei klubean sartzeko gonbitea luzatu nahi izan diete Iparreko Ibarretik.

zient. Hasierako solasaldian ikasketen ezaugarriak, ordutegia, ikasgaiak... azaldu zituzten. Ondotik, Ana Etxeberria

orientatzailearekin, instalazioak bisitatu zituzten: musika gela, teknologia gela, ikasgelak, liburutegia... Ikasleak

kontent, urduri eta aldi berean ilusioz ateraziren, heldu den ikasturtean ikastetxe berriratgan beharko dutelako.

**POTTOKI**  
 Barrañentz Plaza, 3 - behea  
 31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
 Tfnoa: 548 591 983  
 info@pottoki.com  
 www.pottoki.com

Astelehenean  
 larunbatara:  
 9:30 - 13:30  
 18:30 - 20:00

egoi bardot obregozo arkitektoa  
 679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700  
 948250371 iruflea · imbeko monastegia 62, 4ºC · 31011



**BAZTAN**

## Komisariarik ez dutela nahi aldakarrikatu dute 400 lagunek Elizondon

Herriaren hitza errespetatzeko exijitu zuten ekainaren 13ko manifestazioan

**ttipi-ttapa**

*Komisariarik ez, herririk ez du nahi* lelopean, 400 lagunek bat egin zuten Elizondoko Baztanberri auzoko bizilagunek ekainaren 13rako deitutako manifestazioarekin. Manifestazioa komisaria egin nahi den Baztanberri auzotik atera zen eta karrizak karrika ibili ondotik, Foruen Plazara ailegatu zen, Balleko Etxearen aitzinera.

Miren Karmele Gomez eta Javier Quintanok manifestazioaren akabailan irakurritako komunikatuaren arabera, bizilagunak ez daude ados «*Udalak 30 urterako baztandar guziena den lurzati hori Nafarroako Gobernuari doan uztearekin, zertarako eta foruzainen komisaria egiteko*». Lur zati hori Baztanberriko auzotarrek utzi zioten Udalari, erabilera publikoa emateko, zerbitzu berriren bat edo orain arte bezala berdegune bezala uzteko, «*baina ez zaigu hain komisaria handia egiteko lekurik egokiena iruditzen*».

Komisariak Nafarroako ipar-mendebalde osoari zerbitzua eman lieke, 25.000 bizi-

laguni. «*Horregatik ez dugu ulertzen 3.200 bizilagun dituen herri bateko auzorik jendetsue-nean paratzea*».

Auzotarrak kontent gelditu ziren deialdiak izandako erantzunarekin, «*jende gazte aunitz zegoen, espero genuen bezalaxe*». Hemendik aitzinera komisiarekin gertatzen dena zorrotz begiratuko dutela aipatu zuten bizilagunek, hain zuzen, uztaillaren 1eko Batzar Nagusian aztertuko den gaietako bat izanen baita. Komunikatua irakurri ondotik, jendeak txalo egin eta «*herriaren hitza errespetatu*» oihukatu zuten.

Bertzalde, aipatu, dagoeneko 800 sinadura bildu dituztela komisiariaren kontra.

**PARLAMENTUAN EZTABAIDAGAI**

Astelehen honetan akitzekoa zen komisiariaren proiektua idazteko kontrataziorako eskaintzak aurkezteko epea eta asteartean Nafarroako Parlamentuan gaia aztertzekoa zen. Aipatu, bertzalde, joan den ortziralean, Baztanberriko auzotarrak Udalarekin bildu zirela.



ARGAZKIA: ONDIKOL  
Antolatzaileak gustura gelditu ziren manifestazioak izandako erantzunarekin.



**Jaunartzeak Almandozen**

Joan den ekainaren 14an Alazne eta Oihan bi gaztetxo hauek Lehen Jaunartzea egin zuten.

ARGAZKIA: ZALDUA

**Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa**

Larunbat honetan, ekainak 27, Ziurtagiria-

ren Elkarteak Baztango enpresa, saltoki eta gisa guztietako entitateei Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa eginen

die. Arizkunenea Kultur Etxean eginen da banaketa ekitaldia, 13:00-etan hasita. 50-60 Ziurtagiri banatuko dira.

**Iñaki Alzulet margoak**  
 Pintura dekoratiboa eta industriala • Dekorazio berriak, berrikuntza  
 Pinturak • Berruntzeak  
 Lakatua eta berruntzeak laboretan • Pinturak  
 Herri eta espazio arrimondorietan garbitzen da  
 Tel.: 609 802 417 • Buz-ttapi etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAGAZULI  
 pinturas.alzulet@yahoo.es

**ARMUA JATETXEA**  
  
 T. 948 696 131  
 Zuzendaritza eta zerbitzu  
 URDAGAZULI

**ttipi ttapa**  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
 ☎ (0034) 948635458

## SARA

# EHAk irabazi ditu hauteskundeak Saran eta UMP izan da bigarren bozkatuena

Abertzaleen artean gehiengo osoa eskuratu dute gure herrian

## Xan HARRIAGUE

Europako hauteskundeetan, EHA Euskal Herriaren Aldek, Mixel Gerendiainen zerrendak, eskuratu ditu boto gehien gure herrian. 204 saratarrek eman diote botoa EHARI. UMP bigarren gelditu da, 136 botorekin eta EAJ-PNB, Jean Aniotz-behereren zerrenda, hirugarren, 121 botorekin. AB barneratzen zuen Europe Ecologie laugarren atera da, 73 botorekin.

Frantziako alderdi sozialistak 29 boto baik ez ditu eskuratu, eta MODEMek are gutxiago, 26, hain zuzen ere. Gaineratiko alderdi guztiek ez dute babes adierazgarririk eskuratu. Guztira 1.870 herritarrek zuten bozkatzeko eskubidea, baina 692k baik ez dute baliatu, horien artean 25ek zuri edo baliogabe bozkatu dutelarik. Abstentzio handia izan da, %63koa.

## ABERTZALEEN NAGUSITASUNA

Banatuta aurkeztu badira ere, hautagaitza abertzaleek gehiengo eskuratu dute. EHAk bozkatu dutenen %30,6a eskuratu du eta EAJ-PNBk %18,1a. Eu-

rope Ecologiek eskuratu dituen botoen artean zaila da jakitea zenbat izan diren abertzaleak, baina batzuk hala izan direla pentsatzen ahal da. Orduan, erran nahi luke botoen erdia baino gehiago abertzaleak

izan direla.

Joan den urteko kantonamendu bozetan Euskal Herria Bai abertzaleen koalizioak 626 boto eskuratu zituen. Oraingoan baino gehiago. Abstentzio handia izan dela eta, boto ko-

purua murriztu da, baina batzabesteko ordezkari hazi. Iaz abertzaleek %42,4a izan zuten eta aurten %50 inguru, beti ere kontuan hartuz Europe Ecologie barnean diren boto abertzaleak zenbaitzaz direla.

Frantziako indarreki begiratuta, berriz, UMPk botoen %20,4a eskuratu du, iazko kantonamenduan baino anitzez guttiago, orduan gehiengo osoa eskuratu baitzuen lehen itzulian. PSF eta MODEM ez dira ezta botoen %5era ere arribatzen.

## Eskola publikoaren besta

Ikastola eta serroren eskolaren ondotik eskola publikoak izanen du bere besta asteburu honetan. Larunbat goizetik aitzinera hainbat animazio izanen dira plazan eta arratsaldean, berriz, haurren ikuskizuna.



ARGAZKIA: X. HARRIAGUE

## Merkatuak uztailetik aitzinera

Azken bi urte hauetan bezala, uda partean merkatua egingen da ortzegun goiz guziz plazan uztailearen 2tik buruilearen 10a arte. Fruituak, barrazkiak, zerrikiak, ahatekiak, gasnak, jogurtak eta erreximenta bezalako janariak salduko dituzte herriko eta inguruetako ekoizleek. Horiez gain, uztailean eta abuztuan merkatu nagusi bana egingen da janari eta eskulanekin.

**VENTA PEIO**

udaberri udako modan sekulako eskaintzak

NIKE, REEBOK, LACOSTE, ADIDAS, HIFCLUB, LEVI'S, KARL LAGERFELD

Benak (Jarduerak) 21.700.000A  
Tel: 948.625.220  
Fax: 948.625.220

Benak (Jarduerak) 21.700.000A  
Tel: 948.625.220  
Fax: 948.625.220

Benak (Jarduerak) 21.700.000A  
Tel: 948.625.220  
Fax: 948.625.220

**ZOANSA**

SEAT, VW, HYUNDAI, AUDI

**MARKA GUZIEN KONPONKETA**

Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (samera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505



## URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Ludoteka zerbitzua eskainiko da ekainaren 29tik uztailaren 17ra

Zugarramurdiko eta Urdazubiko haurrentzat izanen da

### Margari eta Koro

Guraso Elkarteak antolatutako ekainaren 29tik uztailaren 17ra Urdazubi eta Zugarramurdiko haurrendako ludoteka zerbitzu bat eskainiko da. Astelehenetik ortziratera eta goizean 11:00etatik 13:00etara izanen da, bi herrietan antolatuko diren ekintzetan.

Izena emateko epea ekainaren 19an etsi zen, baina plaza batzuk gelditu direnez, ekainaren 26a arte bertze epe bat ireki da.

Informazio gehiago hartzeko Guraso Elkartearen edozeini galdetzea nahikoa da.

### Urdazubiko Turismo Bulegoan langile bila

Urdazubiko Turismo Bulegoan aritzeko langile bila ari da Bertizko Par-

tzuego Turistikoa. Euskara, gaztelania eta frantsesa jakitea eskatzen du eta horrez gain, turistei harrera egiteko trebetasuna izatea. Nafarroa eta Baztan-Bidasoa ezagutzea ere kontuan hartuko du.

Partzuergoak hiru hilabeterako kontratua eskainiko du eta interesatuek ortzegun hau baino lehen curriculuma helbide honetara bidali beharko dute: [bertiz@consorciobertiz.org](mailto:bertiz@consorciobertiz.org).

### Pilotaren Unibertsoa

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere Pilotaren Unibertsoa jaialdia egingen da Urdazubin, Bertizko Partzuergo Turistikoa antolatuta. Hirugarren edizioa izanen da eta ekitaldiak uztailaren 24an eta abuztuaren 8an eta 22an izanen dira.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

### Bestaberri Eguneko prozesioa

Aitzineko bi urteetan egin gabe gelditu zena, aurten lortu da: Bestaberriko prozesioa egitea. Urteak pasatu ahala, aldatuz gan da prozesioa hau, eta aldaketa haundiena egunarena da, duela urte andanatik hurat ez baita Bestaberri egunean egiten, bezpera arratsean baizik (apez faltagatik). Bertalde, lehen plazan ematen zen aldarea orain Elizargietetan ematen da, eta karririk apaintzeko lanak ere arras tikititu dira, gaur egun ez baita lurlean oihaik eta belarrik ematen. Hala ere, duela 30 bat urte ahantzita zegoen usai bat aurten berreskuratu da: elizako hiru estandarteak atera ziren, prozesioari izugarri itxura ponpoxoa emanez.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Ikasturte bukaera

Astelehen honetan, hilak 22, akitu zuten ikasturtea eskolako neska-mutikoei eta behar bezalako akabaila emateko besta eguna izan zuten. Guraso Elkarteak antolatuta titiriteroen bisita izan zuten eta ondotik denek elkarrekin bazkaria egin zuten. Argazkia ikasleak Korrikan atera zirenekoa da.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Irujo karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Carlos  
Garaikoetxea  
Etxenike  
abokatuak

Thoa.: 948 581 488  
Mug.: 630 354 818

Santiago, 58 DC  
ELIZONDO

**MONTXO** ОСТАТУА

ДАНДКО-ДЕНДЛ  
АНДАН-БОРДЛ - УРДАЗУБИ

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Dantzarineatik  
2 km-tara

## SENPERE

# Kepa Etchandy argazkilariaren lanak ikusgai dira Auberge Basque jatetxean

140 argazki baino gehiagorekin osatu dute erakusketa

Franck DOLOSOR

Cédric Béchade Auberge Basque ostatu-ko jabea ospetsua bilakatu da Michelin gidak eman zion izarra ez zuela begi onez ikusten erran baitzuen. Horren karietarat, elkarriketa ere egin genion **Ttipi-Ttapan**.

Duela hiru urte, Donibane Lohizuneko bide zaharrea den jatetxea osoki berritzea deliberatu zuen Limousin eskualdeko sukaldari gazteak. Berehala harremanetan sartu zen Kepa Etchandy euskal argazkilariarekin eta orain bi gizonak lagunak dira.

Azken hogoita hamar urte hauetan Baionan finkatua den xiberotarrak 140 argazki erakusten ditu egun hauetan Auberge Basque ostatuan paratu duen erakusketan.

Egun batzuen buruan, Mon Pays (*Nire herria*) argazki bilduma plazaratuko du Kepa Etchandy Atlantica argitaletxearekin. Liburu berri hunen aintzinsolas Zigor zizelkariak egin du. Preseski Zigor artistaren bi lan ikusgai daude Auberge Basque ostatuan.

## Europako hauteskundeak

Europako hauteskundeek Frantziako emaitza bertsuak izan dituzte Senperen ere: abstentzio handia (%60,12), eskuina nagusi –aitzineko aldian baino 106 boto gehiago–, sozialistek eta zentristek boz ainitz galdu dituzte –117 eta 42 gutxiago, hurrenez hurren–, eskuin muturra desagertzekotan da eta ekologisten batasuna indartsu –2004an baino 153 boto gehiago–.

José Bové laborari sindikalista ezaguna Senperen izan zen maiatzean Herri Urratsen karietarat eta senpertarrek bigarren tokian sailkatu dute Bovék, ekologistek eta Abertzaleen Batasunak osatu duten koalizioa. Batasunaren inguruko abertzaleak hirugarren indarra izan dira eta beren emaitza hobetu dute, duela bost urte baino 10 boto gehiago jaso.

Eusko Alderdi Jeltzalea lehen aldikotz presentatu da eta boz abertzaleen kopurua haunditzea erdietsi du Senperen.



ARGAZKIA: EITB

## EAE eta Iparraldeko hautetsiak elgarrekin

Eusko Jaurilaritza berria eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa elkarlanean ariko dira ondoko urteetan ere. Ezkerrak eta eskuinak bat egin dutenetik euskal abertzaleak gobernutik kanpo emateko, ez zen baxteregi euskal gobernamentu berriak zer egingen zuten mugaz gaindiko harremanen sailean. Berriki bi aldeetako hautetsiek bi bilkura egin dituzte, Bilbon eta Baionan, eta elkarlanarekin segitzeko asmoa erakutsi dute. Telebista analogikoa itzaltzekotan delarik Europa osoan, hautetsiek hitzartu dute behar diren urratsak egingen dituztela EITB Iparraldean ere ikusteko numerikoan edo digitalean. Proiektua luzea izanena da baina dena ongi badoa Senperen ere ikusi behar genituzke ETB1 eta ETB3 egun oroz euskara hutsean ari diren bi kateak.

### BERTZE HERRIETAKO DATUAK

Zortzigarren orrialdean ekainaren 7ko hauteskundearen emaitzak ikus daitezke herriz herri, baina aitzineko urteetakoekin konparazio bat egite aldera, Senpereko datu guztiak jaso ditugu hemen.

URTEA	2009	2004	1999
UMP	417 (%27,01)	311	137
Europe Ecologie	263 (%17,03)	150	141
EHA	187 (%12,11)	177	-
Modem	152 (%9,84)	194	183
PSF	127 (%8,23)	244	137
EAJ-PNB	87 (%5,63)	-	-
NPA	66 (%4,27)	25	68
Front National	36 (%2,33)	69	33



## SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



HERRIKO  
ETXEN  
IDENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542319

Muzen eta Yérronpe

SARA





## EZKONTZAK

**Asier Lazkano** eta **Elixabet Zozaia**, Berakoak, ekainaren 6an Beran.  
**Jon Koldo Arburua Lukanbio** eta **Eider Portu Zubieta**, Arantzakoa eta Lesakakoa, ekainaren 6an Lesakan.  
**Iñaki Agirre Apezetxea** eta **Amaia Agirre Elorriaga**, Leitzakoak, ekainaren 11n Leitzan.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## SORTZEAK

**Enea Erkizia Amoros**, Doneztebekoa, ekainaren 7an.  
**Ekiñe Goñi Oskotz**, Arantzakoa, maiatzaren 31n.  
**Oihan Antzizar Begiristain**, Lekunberrikoa, maiatzaren 28an.  
**Leiane Rementegi Ariztia**, Urdazubiakoa, ekainaren 11n.  
**Oihan Pinto Maritxalar**, Berakoa, ekainaren 9an.  
**Mohamed Abderrahman Mohamedcheij**, Doneztebekoa, ekainaren 2an.  
**Naiara Aranguren Zaldúa**, Lesakakoa, ekainaren 10ean.  
**Uxuri Anduaga Jorajuria**, Sunbillakoa, ekainaren 2an.  
**Ander Larraburu Hernandorena**, Sunbillakoa, ekainaren 5ean.  
**Iñaki Bazterrika Illarregi**, Iturengoa, ekainaren 4an.  
**Oihan Azkarate Elizegi**, Anizkoa, ekainaren 7an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## HERIOTZAK

**Carmen Peña Perugorria**, Berakoa, maiatzaren 30ean, 80 urte.  
**Antonio Antzizar Arrupea**, Doneztebekoa, ekainaren 4an, 68 urte.  
**Jose Zarranz Irabuena**, Legasakoa, ekainaren 5ean, 73 urte.  
**Pascual Pegneguy Juanikotena**, Elizondoka, ekainaren 5ean, 77 urte.  
**M<sup>a</sup> Paz Martinez Laskurain**, Berakoa, ekainaren 9an, 88 urte.  
**M<sup>a</sup> Luisa Perotxena Elizegi**, Iruritaakoa, ekainaren 11n, 101 urte.  
**Francisco Etxepare Madariaga**, Lesakakoa, ekainaren 12an, 81 urte.  
**Justo Berasategi Sukuntza**, Leitzakoa, ekainaren 13an, 88 urte.  
**Angela Erasun Iriarte**, Beintza-Labaiengoa, ekainaren 14an, 89 urte.  
**Juan Bautista Telletxea Elizondo**, Igantzikoa, ekainaren 14an, 95 urte.  
**Felisa Mariezkurrena Apeztegia**, Leitzakoa, ekainaren 14an, 83 urte.  
**Isabel Ballesteros Jauregi**, Elizondokoa, ekainaren 15ean, 86 urte.



**Justo  
BERASATEGI SUKUNTZA**  
 Leitzan hil zen ekainaren 13an, 88 urte zituela

88 udaberritan  
 eman digun maitasun eta umorea  
 88 udaberri goxotan  
 loratu den landarea  
 joan egin da gure attuna  
 gizon ona, alai eta dotorea  
 betiko bihotzen eramango zaittugu.

ZURE FAMILIA



**Juan Bautista  
TELLETXEA ELIZONDO**  
 Igantzikoa, 2009ko ekainaren 14an

Sortzeak beti berekin dakar  
 noizbaitere hil beharra  
 jakinda ere ezin apaldu  
 begietako negarra  
 laurogei eta hamabortz urtez  
 eman zenigun indarra  
 zure muxuak, zure lastanak  
 besarkadak, irrifarra  
 beti gurekin izanen dira  
 gorderik aitatxi xaharra.

ZURE FAMILIA



**Jose M<sup>a</sup>  
ARBURUA TOMASENA**  
 Etxalar, 1999-VI-27 (X. urteurrena)

Denborak mina txikitzen du,  
 maitasuna, berriz, haunditzen doa.

ETXEKOOK MAITE ZAITUGU

## AIZKORA

# Ander Erasunek irabazi du 19 urtez azpikoen Urrezko Aizkolarien Txapelketa

Saralegiren kontra irabazi zuen finala ekainaren 6an Azpeitian

## ttipi-ttapa

Bera zen favorittoa eta ez zuen hutsik egin. Ander Erasun aurtiztarrak aise irabazi zuen Urrezko Aizkorako finala, 19 urtez azpikoen kategorian. Ruben Saralegi leitzarraren kontra, hiru proba irabazi zituen eta Saralegik bi.

Lehen proban leitzarra izan zen nagusi, 45 ontzako enborra 30 kolpetan ebaki baitzuen. Erasunek bi gehiago eman zizkion. Bigarren proban, berriz, Male-rrekara joan zen garai-pena: 53 segundotan ebaki zuen tamaina bereko egurra, eta minutu eta segundo batean Saralegik. Hirugarrena,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Sasoi betean dagoela erakutsi du bertze behin Ander Erasunek.**

lehenbizikoa bezala, leitzarrak irabazi zuen, 51 segundotan moztu baitzuen zutikako enborra

eta minutu eta 11 segundotan aurtiztarrak.

Saioa bukatzeko falta ziren bi probak Era-

sunentzat izan ziren. Laugarrenean, kanaerdikoa ebaki behar izan zuten eta minutu eta 31

segundo behar izan zituen horretarako Erasunek; Saralegik, berriz, minutu eta 57 segundotan.

Azken proban bi kanaerdiko eta bi 60 ontzako ebaki zituzten eta Erasunek 13 minutu eta 58 segundotan egin zuen lana. Saralegik 15 minutu eta 17 segundotan.

Sailkapen orokorrean, 18:05eko denbora egin zuen Erasunek guztira eta 19:36koa leitzarrak.

19 urtez azpikoen txapelketa irabazita, 23 urtez beheitokoa ere jokatuko du Ander Erasunek Aitzol Atutxa joan den urteko txapel-dunaren kontra.

## Nafarroako II. mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatuko da larunbatean Donezteben

14 aizkolari ariko dira lehian, horietatik 10 eskualdeakoak

## ttipi-ttapa

Doneztebeko Sanpedro besten barne, Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatuko da larunbat honetan, ekainak 27. 17:00etan hasiko da ikuskizuna eta guztira 14 aizkolari ariko dira

lehian, tartean eskualdeko hamar.

Hauk izanen dira parte hartuko dutenak: Luis Mari **Belarra** (Doneztebe), Juan **Telle-txea** (Doneztebe), Jesus **Exteberria** (Beintza-Labaien), Xabier **Mindegia** (Beintza-Labaien), Jon **Telletxea**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Larunbatean Donezteben ariko diren aizkolarietako batzuk. Ezkerretik hasita, Juan Telletxea, Xabier Mindegia, Jon Rekondo eta David Amillano.**

(Beintza-Labaien), Xabier **Ariztegi** (Etxalar), Arkaitz **Olan** (Leitza), Jon **Rekondo** (Leitza), Oihan **Larretxea** (Bera), Patxi **Mindegia**

(Zubieta), Juan Jose Erdozia (Etxarri Arantz), David Amillano (Altsasu), Sergio Mandaz (Garralda) eta Daniel Vicente (Otsagi).

Doneztebeko saio-ko bortz lehenbizikoek aitzinera egitea txartela lortuko dute, eta azkeneko biek maila galduko dute.



## LASTERKETA

# Fernando Etxegarai eta Cristina Arbues nagusi Bertizaranako II. Herri Krosean

59 lasterkarik egin zuten 7,5 kilometroko ibilbidea

## ttipi-ttapa

Fernando Etxegarai beratarrak bertze garaipen bat eskuratu zuen ekainaren 6an Legasan, Bertizaranako Bigarren Krosa irabazita. 25 minutu eta 10 segundo behar izan zituen Legasa, Nabarte eta Oieregi arteko 7,5 kilometroko ibilbidea osatzeko, bigarren sailkatu zen Sabin Arrutik baino bi segundo guttiago. Hirugarren, berriz, Daniel Sanz gelditu zen. 25:18ko denbora egin zuen.

Emakumezkoetan, Igantzin bizi den Cristi-

na Arbues izan zen azkarrena. 31 minutu eta 8 segundotan egin zuen ibilbidea. Bigarren Aina Agirre izan zen, 37:11ko denbora egin zuen. Eta hirugarren emakumezkoa Idoia Amezkua (38:47).

59 lasterkarik hartu zuten parte krosean, johan den urtean baino gehiago –iaz 40 atera ziren–, eta horietatik sei izan ziren emakumezkoak. Sari banaketaz gain, kirol materialak eta eskualdeko produktua zozketatu zituzten antolatzaileek.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Helmugaratu zen lehen emakumezkoa Cristina Arbues izan zen. Patxi Iratzoki igantziarrarekin egin zuen ibilbidea.

## PILOTA

# Buruz buruko hirugarren txapelik gabe oraingoaz

Olaizola II.ak 12-22 galdu zuen finala Irujoren kontra

## ttipi-ttapa

Hiru eta bi Irujoren alde. Irujok buruz buruko hirugarren txapela jantzi duelako eta Olaizola II.ak birekin segitzen duelako. Hirugarrena lortzeko aukera eduki zuen ekainaren 7an, buruz buruko finalen, baina ezin izan zuen. 12-22 Iberokoa gailendu zitzaion.

Donostiako Atano III.a pilotalekua goraino betea zegoela jokatu zuten partida Irujok eta Ai-

marrek, elkarren aurkako hirugarrena. Ez zen baten zein bertzearen aldeko oihu eta pankartarik falta izan, baina azkenean Irujoren aldekoak gehiago izan ziren.

Txapelketa berezia izan da goizuetarrarentzat. Ruben Belokik eta Abel Barriolak ezin izan zutelako bere aurkako partida jokatu, eta Xabier Urberuaga kanporatzearekin zuzenean ailegatu zen finalera. Be-

harcada horregatik eta Irujo sasoi betean da goelako, jendeak ere favorito argi ikusi zuen finalaren atarian Iberokoa.

Hasiera orekatua eduki zuen partidak, eta nahiko berdinduta ibili ziren. Partidaren bigarren zatian, ordea, Irujoren jokoa nagusitu zen.

Partida bukatuta, Olaizolak «*nekatuta eta deskonektatzeko go-go*z» zegoela aitortu zuen.



ARGAZKIA: WWW.ASPE.COM

Olaizola II.a, gibelean Irujo duela.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### ERAKUSKETAK

#### URDAZUBI

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegiko Klaustroan.

#### ELIZONDO

Ekainaren 29a bitarte, Palestinaren aldeko Nafarroako artisten lanak ikusgai, Arizkunenea Kultur Etxean.

#### SENPERE

Egun hauetan, Kepa Etchandy argazkilaria lanak ikusita Auberge Basque jatetxean.

### IKASTAROAK

#### ELIZONDO

Ekainaren 29tik uztailaren 10era, grabatze eta inprimatze lantegia haurrendako. Astelehenetik ortziralerara. Taldeak 10:30-11:30 eta 11:30-13:00. Izen-ematea Arizkunenean (948 581279). Prezioa: 10 euro. **Abuztuaren 3tik 31ra**, helduendako ikastaroa: Baztango paisaiak. Astelehen, asteazken eta ortziraletan. Izen-ematea Arizkunenean. 25 plaza eta prezioa: 90 euro Irakasleak: J. M<sup>a</sup> Apezetxea eta T. Sobrino.

#### BERA

Ekainaren 26tik 28ra, Mugabeclown ikastaroa, Norberaren clowna lehen aldiz topatzeko izenekoa. Prezioa: 250 euro. Informazio gehiago eta izen-ematea (0034) 948 631162an.

### TXAPELKETAK

#### LESAKA

Uztailaren 5ean, XII. Trikitixa Txapelketa, 18:30ean Plaza Zaharrean.

## GOMENDIOAK



## Udan sartuta bestaz besta gozatzeko aukera nonahi

### ASTEBURUAN ERRATZUN ETA DONEZTEBEN

Joan den igandean, ekainak 21, sartu ginen udan eta horrekin batera herri aunitzetako bestak hasiko dira. Dagoeneko batzuk pasatuak dira: **Irurita, Urdazubi, Arizkun, Almandoz, Saldias...** Eta orain gainean ditugunak **Doneztebe** eta **Erratzuko** Sanpedro bestak dira. Ortziral honetako txupinazoarekin hasiko dira eta heldu den ekainaren 30era bitarte adin guzietako jendearentzako ekitaldiak izanen dira. Sanpedro besten ondotik, Sanferminek hartuko du lekukoa: **Azpilkuetan** eta **Lesakan**, uztailaren 4tik 7ra eta 3tik 11ra, hurrenez hurren. Xehetasun gehiago aldizkari honetan aurkitu-

ko dituzue. **Iturenen** txanda izanen da gero, eta Santioak etorriko dira segidan: **Aranon, Elgorriagan** eta **Elizondon**. Abuztuan sartuta, **Gazteluko** Santodomingo bestak, **Berako** Sanestebanak, **Zigako** Sanlorentzoak eta **Beintza-Labaiengo** bestak izanen dira eta ondotik, **Leitzako** eta **Sunbillako** Santiburtzioak. Amabirjinetan ere aukera ugaria izanen da: **Etxalar, Arantza, Zugarramurdi, Amaiur, Oronoz-Mugairi, Goizueta, Zubieta, Ezkurra, Legasa, Donamaria, Lekaroz, Arraioz, Narbarte, Areso...** Aukera ugaria, beraz. Herri herriko ekitaldiak egunak hurbildu ahala emanen ditugu.

## DISKAK



Trikidantz

TRIKIDANTZ

2009

Kalean da Trikidantz diska berria! Eta aurkezpena ere egin dute dagoeneko; ekainaren 13an egin zuten Elizondoko Lur dantzalekuan. Taldearen izena darman lanak 10 abesti ditu, eta guztien doinuak taldeko partaideek konposatutakoak dira. Alde batetik, trikitixa tradizionalaritari tartea egin diote diskan: arin-arina, fandangoa, kalejira... Baina denen gusturako, bada bertzeko estilotoak ere. Bost lagunek osatzen dute taldea: Aurtizko Ainara Mindegia (trikitixa-ahotsa), Doneztebeko Luismi Garcia (bateria), Leitzako Birjina Mariezkurrena (gitarra akustikoa, ahotsa eta perkusioa), Aurtizko Arkaitz Mindegia (baxua eta ahotsa) eta Doneztebeko Xabier Salaberri (gitarra elektrikoa eta ahotsa). Diskoa Aurtizko entsegu tokian grabatua da eta hainbat kolaborazio izan dituzte.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (ekainaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 38,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,151€ kiloa. (+0,001)

**Zerramak:**  
0,460€ Kg/bizirik. (-0,010)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,86 (-0,06)

**1.koa** 3,56 (-0,06)

**2.koa** 3,86 (-0,06)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,96 (-0,06)

**1.koa** 3,66 (-0,06)

**2.koa** 2,98 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,59/2,79

Zaldi-behorrak: 1,59/1,79

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 5,90/6,70

8-10 kilokoak: 4,80/5,20



### JAKIN BEHARREKOAK

# Argindarraren merkatua liberalizatu eginen da uztailaren 1etik aitzinera

Azken aukerako tarifa atera arte ez kontrataziorik egiteko dio Iratxek

Uztailaren 1ean argindarraren merkatua guttiz liberalizatuko da eta horrekin bezeroek argindarra nahi duten konpainiarekin kontratatzeke eskubidea izanen dute. Aldaketarekin zer gertatuko den jakin nahian, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak kontsulta ugari jasotuzte azken aldian, konpainia elektrikoek eskaintzak eginez, «zenbaitetan kontsumitzailea zerbitzua kontratatzerako derrigortua dagoela adieraziz». Baina ez da horrela. Eskutitzak ez ezik, saltzaileen deiak eta bisitak ere jasotzen ari dira hainbat herritar.

Iratxeren gomen-dioa eskaintzak momentuz alde batera uzteko izan da. Izan ere, Espainiako Gobernuak azken baliabide gisa azken aukerako tarifa berria



**Ongi informatu eta baldintzarik onenak eskaintzen dituen enpresa aukeratzeko gomendatu du Iratxek.**

onartuko du eta hori jakinarazi arte, ez zerbitzurik kontratatzeke aholkatu du. Hamar kilowatt baino guttiago kontsumitzen dituztenentzako tarifa da. Beraz, etxebizitza eta familia gehienek izanen dutena. Espainiako Gobernuak borts enpresari eman die tarifa hori merkaturatzeko aukera: Iberdrola Comercializacion de Ultimo Recurso, Endesa Energia XXI,

Union Fenosa Metra, Hidrocantabrico Energia Ultimo Recurso, eta Eon Comercializadora de Ultimo Recurso.

Azken aukerako tarifa edukitzeko merkaturatzeko eskubidea duten borts konpainietako bat aukeratu behar du bezeroak. Tramiterik egiten ez badu, oraingo hornitzaileari dagokion enpresaren esku gedituko da kontratua.

Horrekin batera, eskaintzak konparatzeko denbora hartzeko ere gomendatu du Iratxek, «ongi informatu eta berme gehien eta baldintzarik onenak eskaintzen duen enpresa aukeratzeko». Gaineratu duenez, «kontratuaren kopia, kontratu etetearen baldintzak zein diren eta luzapena zenbatekoa den eskatzea ezinbertzekoa da».

### LIBURUAK



Arrain abisalak

**X. eta M. ETXEBERRIA**  
ELKAR, 2009

Mikrokosmos berezi bat biltzen da egunero Ilargi tabernara: Tasio eta Ugarte, Arantxa eta Virginia, Xanti eta Miel, Olaso eta Perez; nor bere istorioekin, nor bere berezitasunekin. Haietako bat hilik agertzeak, ordea, dantzan jarriko ditu batzuk eta berteak, kolokan beren arteko harremanak, zalantzan elkarri buruz dakitena... Erdi Aroko hildakoen kondairak eta gaur egungo tabernetako parrandak nahastuz, polizi eleberri original eta indartsua biribildu dute

Xabier eta Martin Etxeberria anaiek, leku-garai zehatzean girotua eta umore zorrotzez ondua. Ohituta gaude Los Angelesko auzoetako krimenen kontaketa edo New Yorkeko clubetan dabilzan detektibeen istorioak ikusten, zineman nahiz literaturan; hemen, berriz, edonork ezagutzeko geografia batekin egiten dugu topo, eta gure bizilagun edo koadrilakideak dirudite ikerlariak ere, eta horrek, hurbiltasuna eta sinesgarritasuna ematen dio nobelari.

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

#### MENDI ATERALDIAK

##### ARANTZA

Uztailaren 4an, Leitzara mendialdia, Ekaitza Elkarteak antolatuta.

##### LESAKA

Ekainaren 28an, Beti Gazte elkarteak antolatuta mendialdia irteera.

##### SUNBILLA

Ekainaren 28an, Azku mendialdia, Ulibeltzak Mendi Taldeak antolatuta.

#### BESTAK

##### ERRATZU

Ekainaren 26tik 30era, Sanpedro bestak.

##### DONEZTEBE

Ekainaren 26tik 30era, Sanpedro bestak.

##### AZPILKUETA

Uztailaren 4tik 7ra, Sanferminak. Xehetasunak 41. orrialdean.

##### LESAKA

Uztailaren 3tik 11ra, Sanferminak. Xehetasunak gehigarrian.

#### KONTZERTUAK

##### LESAKA

Uztailaren 3an, Lesakako Musika Bandaren emanaldia, 20:00etan Plaza Zaharrean.

#### OSPAKIZUNAK

##### ELIZONDO

Uztailaren 19an, Baztandarren Biltzarra.

#### HAURRENTZAKO AISIA

##### ETXALAR

Ekainaren 28an, Dantzaren eta Haurren I. Eguna, ekitaldiak egun osoan Xehetasunak 24. orrialdean.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €. Ttipi-ttapa telebistan eta [www.ttipi.net/en](http://www.ttipi.net/en) ere agertuko da 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituko
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ANZABAL INMOBILIARIA

### BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

### IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

### ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuko bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

[anzabal@anzabal.com](mailto:anzabal@anzabal.com)

BERA  
MAITZAN DAGOEN  
ILEAPAINDEGI BAT  
ERRENTAN EMATEKO  
☎ 675 716121

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**ETXALAR.** Baserria salgai. Erreformatzeko dago. 10.000m<sup>2</sup>ko lur eremua du. ☎661 121540.

**DONEZTEBE.** Pisu salgai, ganbararekin elkartua. Prezio onean. ☎607 978656.

**BERA.** Bortziriak auzoan etxe adosatua salgai. Interesatuak bakarrik deitu. ☎617 567047.

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan eman

**BERA.** Bidasoa karrikan 2 logelako pisua errentan emateko, pertsona bat edo birenzat. ☎699 864604.

**DONEZTEBE.** Zazpigerutze plazan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldia,

trastelekua eta garajea. Estreinatua gabea. 600 euro. ☎943 644701.

**BERA.** Agerra auzoan 80 m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. ☎620 203906.

### GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

**LESKA.** Antoiu 23, beheko solairuan, 48 m<sup>2</sup>ko bulegoa salgai edo errentan emateko. ☎679 432522.

**LESKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**LEITZA.** Herrigunetik hurbil dagoen industrialdean 2 solairuko nabea errentan emateko edo salgai. [navedeleiza@hotmail.com](mailto:navedeleiza@hotmail.com) / 608927705

### LURRAK/ORUBEAK 112 Salgai

**SARA.** Ura, argia eta isurbidea dituen 800 eta 1.000 m<sup>2</sup> arteko lur eraikigarria salgai. ☎0033 559542540.

**SARA.** 800 eta 2.000 arteko lur eriakigarriak salgai. Lehenbizkai auzoan. ☎948 631133.

**DONEZTEBE.** Lur eremu urbanizagarria salgai, etxe bat edo bi egiteko aukera. Leitzarako errepidean. ☎607 978656.

**ITUREN.** 2.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai, leku eta prezio onean. ☎676 013103.

### ZERBITZUAK

#### 208 Bertzelakoak



### LANA

### 301 Eskariak

Malerrekako **emakume batek** etxeak garbitzen edo haurrak eta adinekoak zaintzen lan eginen luke. Esperientziaduna. ☎666 512402.

**Emakume batek** lan eginen luke: sukaldian, garbiketa... ☎626 852937.

Gizon batek **txofer** lana eginen luke, kamioiekin, trailerrarekin, banaketan... ☎687 149060 (Gonzalo),

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**BERA.** Auzoa jatetxean sukaldari kualifikatu eta esperientziaduna behar da. ☎654 385363.

Norbere etxean **haurrak zaintzeko emakumezkoak** behar dira, 0-3 urteko haurrentzat. Esperientzia ezinbertzekoa. Irakaslea edo haur hezitzailea izatea puntuako da. ☎680 866637.

**BERA, DANTXARINEA, IBARDIN eta LUZAIDEN.**

Enpresa batek frantsesa dakien jendea behar du kosmetika produktuekin lan egiteko. Ahal bada autoarekin. Kilometrajea eta dietak ordainduko dira. Ekainaren 25etik abendu bukaerara, ortzegunetik igandera lan egiteko. Batz bertze 7 ordu egunean. ☎944 106155/[congrebas@congrebas.com](mailto:congrebas@congrebas.com).

### MOTORRAK

#### 501 Salgai

**Volkswagen Scirocco 2.0** TDI 140 autoa salgai, xuria. Premium paketa. 2008ko azarokoa. 7.000 kilometro. ☎629 694443.

**Gas-gas 280 txt pro** naiz, 2004ko urrikoa; nagusi ba-

karra izan dut, ederki zaindu nauena. Matrikulatu eta urtero tailer ofizialean errebisioak egin dizkit eta mendian beti xintxo gidatu nau. Bainoneska batezagutu duenetik ez nau garajetik ateratzen; horregatik nagusi berrin baten bila nabil, gaztea, sasoiduna eta mendiak maitatu dituena. 2100 eurogatik edozeinekin joanen naiz, eta transferentziaren paperak nire nagusiaren kontu geldituko dira. ☎948 630718.



**Suzuki Vitara JLX** gasolina salgai. ☎620 036553.

**Scooter** daelim motorra salgai, 125 cckoa. Egoera onean. Prezioa: 350 euro. ☎678 346566.

**Trialeko motorra** salgai. Gas-gas TXT Pro, 2007. ☎629 235251.

Gas-gas **motorra** eta **erremolke**a salgai. ☎667 675463.

**Suzuki Vitara** salgai. ☎667 675463.

**BMW 320 D** Touring autoa salgai. 163 zaldi eta 2006koa. 90.000 kilometro Azterketak BMWn pasatuak. Xenon, sensoreak, mp3a... Kontsumo ttipia: 6-7 litro/100 kilometroko. Oso egoera onean. ☎669 312220.





**Audi A3** autoa salgai, 2001ekoa. Gris metalizatu, 5 atekoa. 130 zaldi eta larruzko tapizeria. ☎667 605233.

### MOTORRAK

#### 502 Tailerrak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

2 urtekoa. ☎606 019337.  
Bi **zakur** sabueso salgai, 6 eta 12 hilabeteak. Basurdeetan hasiak. ☎655743991.  
Gaztain koloreko **zaldi** ederra eta mendian ongi egoten dena salgai. ☎609 411298/690 830292.



2 **zakurkume** zuri salgai, arra eta emea, 2 hilabeteak. West Highland White Terrier arrazakoak. ☎609 083342 (Berna).



### ANIMALIAK

#### 601 Emateko

**Katakumeak** oparitzeko. Ama ehiztari bikaina. ☎948 451787.

### ANIMALIAK

#### 602 Salerosketak

**Mandoa** salgai. Lanean ongi hezia. ☎659 663498.  
Monturako **behorra** salgai,

### DENETARIK

#### 701 Galdu aurkituak

**Kartera marroi** lauki bat galdu da Etxalarko Bentatan edo Donezteben. ☎608 243935.

**LESAKA.** Urrezko eraztuna galdu da ekainaren 7an. Barnean *M.M. 1969-04-26* jartzen du. ☎948 637138.

Yorkshire arrazako **zakur** bat agertu da Igantziko harrobi inguruan. Grisa. ☎948 635458.

### DENETARIK

#### 702 Salerosketak

Bigarren eskuko **ostalari-tzako makineria eta al-tzariak** salgai. ☎948 451302.

**Ahotza** salgai. Pakete tti-kiak, 4 eta 6 fizelekoak. Garagarra, garia eta oia. ☎607 457004/667 406010 (Dani).

**BERAKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

**UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, 4. LURZORU URBANIZAGARRI EZ SEKTORIZATUKOA (SUNS4), HASIERA BATEZ ONESTEA**

Berako Udalak, 2009ko apirilaren 23ko bilkuran, Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzailea, 4. Lurzoru Urbanizagarri ez Sektorizatukoa (SUNS4), hasiera batez onetsi zuen.

Espedientea jendeaurrean izanen da hilabete batez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik kontatzen hasita.

Bera, 2009.06.10  
ALKATEA Josu Iratzoki Agirre

**Doneztebe AVIA**  
gasolindegia

Club AVIAk gehiago ematen dizu

**SARIK 200**  
**500**  
**ZORZKETAK**

Emitzen dituzte:  
**1000**  
sariak eta zozketak

**Egin zaitez bazkide**  
Club AVIA hartuta duzun esturatu

Informazio gehiago:  
www.clubavia.com eta Doneztebeko AVIA gasolindegian

www.ttipi.net

eskualdeko berriak  
klik batekin



Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**BEÑAT** eta **MIKEL PORTU BARINAGARRREMENTERIA** leitarrek urtea beteko dute ekainaren 29an. Zorionak gurasoen eta Lesakako familiaren partetik.



Iuritako **JANIRE** eta **IRAIA GARATE OPOKAK** uztailaren 1ean eta 11n 3 urte eta urtea beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana aita, ama eta familia guztiaren partetik.



Askozabaleko **ANTTON** eta **AUZAK** urteak beteko dituzte uztailaren 2an eta 31n. Aunitz urtez eta muxu haundi bana etxekoan partetik. Erran amaxori berendu gogo-goxoa prestatzeko!!!



Aunitz urtez kuadrillako bi kaxkarrenei! Ea bien artean afari goxo batera gonbidatzen gaituzuen. Muxu haundi bat eta hagitz ongi pasa zuen eguna!



Urrozko artzainek, **AIALA** eta **EUSTASIO MARIEZKURRENAK**, urteak beteko dituzte ekainaren 26an eta 27an. Muxu bat familiaren partetik.




**IDOIA IRAZOKI BENGOTXEA** lesakarrak 12 urte beteko ditu uztailaren 5ean. Zorionak familiaren partetik. Andele andele!




**AITZIBER IRAZOKI BENGOTXEA** lesakarrak 10 urte beteko ditu ekainaren 30ean. Zorionak familiaren partetik, txamakita.



**NAHIA LEKUONA SAN JUAN** lesakarrak 5 urte bete ditu ekainaren 23an. Zorionak eta muxu handi bat atta, ama eta familia guztiaren partetik. Ongi pasa sorgintxo!



**MAITANEK** 3 urte bete ditu ekainaren 10ean. Zorionak printze amaxo, attatto, amaxi, atabxi, Txui, Kiko eta Rockyren partetik. Segi bet bezain alai. Muxu bat manburita.



Ekainaren 20an 14 urte beteko dituen sunbildar neskatila polit honi zorionak eta muxu haundi bat Arantzako lehengusuen partetik.



Doneztebeko **ALAINA** eta **OLAIA HUARTE JUANOTENAK** 2 urte beteko dituzte uztailaren 24an. Zorionak eta muxu bana familiaren partetik, eta bereziki Naroaren partetik. Disfrutatuta eguna moñonak!!!



Doneztebeko **NAROA HUARTE JUANOTENAK** 5 urte beteko ditu uztailaren 5ean. Zorionak eta muxu bat familiaren eta bereziki Alaine eta Olaiaren partetik. Ondo pasa eguna printzesa!



Anizko **IRATXE GAMIO ETULAINAK** 14 urte bete dituzte ekainaren 20an. Zorionak eta segi horrela. Muxu bat.



**NAIARA MARTIN GOIA** lesakarrak 12 urte bete ditu ekainaren 17an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Janireren partetik.



**JON GASTEARENA IRISARRIK** 5 urte beteko ditu ekainaren 29an. Zorionak pottoko eta segi beti bezain alai! Muxu bat bihotza Ezkurra eta Etxalarko familiaren partetik.

**ZORIONDU**  
internet bidez  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

erraza da

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK**  
zure laguntza behar du

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK**  
zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**  
Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

paure bezereck aukeraturako projektua **can**



# Lasao

• egurrezko altzarria

Lasao Ind.20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98  
 informacion@lasao.com • www.lasao.com



# ZOAN.S.A.



TXAPA • PINTURA • MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA  
**ongi pasa bestak**



Banarta, 2 • Alkaiaga ind. 31789 LESAKA (sarrera Beratik)  
 Tel.: 948 625 555 • Faxa: 948 625 505



# ttiipi txartela<sup>rekin</sup> beti irabazten da

DESKONTUAK · ZOZKETAK · ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttiipi txartela egiteko edo zozketetan parte hartzeko deitu **948 63 54 58**ra. Astehenerdik ostiralera 09:00 - 16:00.

## ZOZKETAK

**LIBURUAK**  
Ibaizabal Argitaletxea  
www.ibaizabal.com

**LIBURUAK**  
Erein argitaletxea  
www.erein.com

**JANTZIA**  
Txapela buruan  
www.txapelaburuan.com

**KAMISETA 1**  
Nafarroa Dinez  
www.nafarroadinez.net

**2 KAMISETA**  
Oninart  
www.oninart.com

**ZIZTADAK JOKUA**  
Argia jolasak  
www.argia.com

## SARIDUNAK

### ttiipi txartela

- HARPIDETZA (Argia aldizkaria)  
Jaione Obandoarena (Sunbilla)
- MARTIKO PRODUKTUAK  
Miren Iguzkiaguirre (Arantza)
- KAMISETA (Txapela buruan)  
Uxoia Vicente (Sunbilla)  
M<sup>o</sup> Tere Urkijo (Lesaka)
- PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOS lotea  
Marian Irazoki (Bera)
- KAMISETAK (Donddo)  
Onintze Zinkunegi (Etxalar)  
Irene Hualde (Sunbilla)
- PUNPALAPLAN (Urbaintxa)  
Leire Portu (Lesaka)

### ttiipi saskia

- 2 SARRERA (Donostiako Aquariuma)  
Doniantzu Aranguren (Lesaka)
- 2 SARRERA (Artic izotz jauregia)  
Asier Guzelbenzu (Lesakoz)

## ttiipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA idatziz

**JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE**

**5 lote**  
**2 SARRERA**  
**LIBURU 1**  
ASTIZ (Nafarroa)  
943 396 095

**2 SARRERA**  
**Artic**  
Palacio de hielo  
Barra 5  
Telefonoa 948 33 88 99  
Urbia Nafarroa

Zozketan parte hartzeko epia: ekainaren 10tik uztailaren 1era. Irabazteari buruzko uztailaren 6ko aldizkarian argitaratuko dira. Mazarren kodetia 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttiipi txartelaren fitxategian gordeko dira aurrerantzean izanin diren jokatzen berri emateko. Zuzenketa edo deusjazarpenaren bati egiteko deitu 948 63 54 58ra.

## DESKONTUAK

**Agara**  
kirolak  
%5 kirol artikuluetan

**Amaita**  
buki eta estremo zentrotan  
%5 kosmetikan %10 oparitan

**MASTER**  
**ALTZURI**  
%5 etxe-tresnetan

**BERAUTO**  
%5 errekanbioetan

**bixkiak**  
%10eko deskontua